

400 pezeta.
15 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

28

Antzerkigintza
eta irakaskuntza
gaia

Marije Uranga
elkarriketa

Musika herrikoa
hezkuntzan
Gehigarria

Euskal eskolaren
azken hogei urteak
Ekarpena

1998ko MAIATZA

Argitaratzailea:

XANGORIN

Zirkuito Ibilbidea,
2. Pabilioia. 20.160
LASARTE-ORIA
GIPUZKOA.
Tel: 943/ 37.15.45
Fax: 943/ 36.10.48

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:
Itziar Barriola, Mikel Estonba,
Arantxa Goiburu,
Mari Karmen Irastorza,
Kristina Mardaraz,
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,
Fito Rodriguez, Maite Saenz,
Xabier Sarasua eta
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:
Imanol Agirre, Begoña Bilbao,
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,
Irene Lopez-Goñi,
Izaskun Madariaga,
Kepa Perez Urraza,
Lore Erriondo,
Lontxo Oihartzabal eta
Pruden Sudupe.

Diseinua:
Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:
ANtZA S.A.L.

Azaleko argazkia:
Hik Hasi

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia
1.998/IV/28

Kopurua: 3.500 ale

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ANTZERKIGINTZA ETA IRAKASKUNTZA

15 elkarrizketa

Marije Uranga
Nerabeekin lanean

19 Gehigarria

Musika herrikoia hezkuntzan

Juan Mari Beltran eta Mixel Etxekopare

26 Esperientziak

Elkartrukea: harremanak bideratuz

Urretxu-Zumarragako ikastola eta Terrassako eskola publikoaren
arteko elkartrukea

29 Ekarpena

Euskal eskolaren azken hogeitun urteak

Ipar Hegoa Fundazioak antolatutako topaketa

31 Berriak

35 Nazioartea

Finlandia: Eskandinaviari begira.

39 Praktikatzen

Zer da eskultura? (eta III)

COUNCIL OF EUROPE-
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurraldeen arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

hik hasi ez ditu bere gain hartzen
laguntzaileek plazaratutako iritziak
ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



fundazioa
fundación

hik hasi

Irakasle euskaldunon aldizkaria



4.000 pezeta urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure partehartzea
ezinbestekoa zaigu

harpide zaitez!

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....
2. DeituraTel.:.....
HelbideaPosta Kodea.....
Herria.....Herrialdea.....
Ikastetxea.....Herria.....
IFZ

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**HARPIDETZA
SARIAK**
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria
4.000 pezeta
Ipar Euskal Herria
160 libera

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Industrialdea, 2. Pabilioia
20.160

LASARTE-ORIA.
GIPUZKOA


Tel: 943/ 37 15 45
Faxa: 943/ 36 10 48

Eskola berriaren gorpuzketan ezinbestekoa den nazionaltasunari ekin zaio

MAIATZA

e d d i t o

r i a l a



par Hegoa lan ikasketarako fundazioak Euskal Hezkuntzan parte hartzen duten talde ezberdinak elkartu zituen euskal irakaskuntzaren bilakaera aztertu eta aurrera begira elkarrekin jokatzeko aukera baloratzeko asmotan. Ehunen bat irakasle, guraso, ikasle, politiko eta sindikalista aritu ziren eztabaidan .

1993an, Euskal Eskola Publikoaren legea ateratzear zegoela eta, Denon Artean plataformaren inguruan elkartu ziren azkeneko aldiz. Bost urte igaro dira eta lege hark sortutako zauriak sendatzen ari badira ere, oraindik gehiago ondu beharko direla dirudi.

Deialdia egin zutenek ausardia erakutsi dute eta parte hartzaileen aldetik eskertua izan zen ausardi hori. Eztabaidak errespetu handiz eman ziren eta partaideek besteen iritziekiko oso jarrera irekia agertu zuten. Zerbait aurreratzen ari dela eta denbora laburrean euskal irakas-

kuntzarako proiektu berriak gauzatzeko esperantzari leiho bat zabaldu zaiola dirudi.

Leiho berbera izango denaren ustetan, etorkizunerako berri batekin etorri zaizkigu ikastolen mundutik. Iparralde eta Hegoaldeko langileentzat "Ikastolen mugaz gaineko lankidetzaz hitzarmena" izenpetu dute arduradun eta langileen artean. Honen arabera, lekualdatze, truke, formakuntza eta abar landuko dira.

Ikastola guztietako langile ororentzat Lan Hitzarmen bakarra lortu nahi da etorkizunean, eta emandako urratsa, bide hori jorratzeko lehen pauso bezala hartu behar da.

Oparoa izan da azken hilabete hau Euskal Hezkuntzarako. Hik Hasi-tik pozez jaso ditugu bi ekimen hauek. Gure xede programatikoetan helburu bezala jasotzen genituen bi ardatz, eztabaida eta herri honen beharrei erantzun dion eskola berriaren gorpuzketan ezinbestekoa den nazionaltasunari ekin zaio Eskola erkidegoak erakutsi duen dinamika eta ausardiak itxaropenez betetzen gaitu.

Aurrera denoi.

*Erronka
berriak
euskal
irakaskun-
tzan*



Lan harremana eta Herri Urrats, mugaz gaineko ekintza garrantzitsuak

k r o n



Mugaz gaineko lan hitzarmen “historikoa” sinatu dute ikastolek

Euskal Herriko ikastoletako erantzukizun ekonomikoa duten Seaskak, Nafarroako Ikastolen Elkarteak (NIE) eta Partaideak, eta langileen ordezkariak duten LABek, ELAk eta SEASKAko langileek langile-riaren lan harremanak arautzeko mugaz gaineko hitzarmena sinatu dute.

Apirilaren 30eko agerraldian izan ziren guztiek “garrantzizko eta historikotzat” jo zuten sinatu berri duten hitzarmena. Akordioaren

sarreran azaltzen denez, ikastoletako hezkuntza egitasmoak “erabateko lotura sortu ditu gizartean eta formakuntzan (Plan Pedagogiko Nazionala, kasu)”.

Europatik etorriko den eredu berriari egokitutako hitzarmena nahi da. Bitartean, “Egungo lan harremanen esparrua kontuan izanik, gaitzete pausoak eman nahia eta Europako Komunitatearen barruan lan legedi zabalagoak sortu bitartean lankidetzaren hitzarmena eratzea adosten dugu bide honetarako lehen urrats moduan”.

Hitzarmenak dioenez, “akordioak, elkarte ezberdinetako langileen harreman eta lan baldintzak hobetzeaz gain, lan berrietarako pausoz pausoko bitartekoak eratzea du hurbileko helburu, interes komune hainbat gairi tratamendu komuna eman ahal izateko”.

Hitzarmenaren edukiak araubideko izaera izan dezaten, norberaren lan hitzarmenaren txertatzeko konpromezua hartzen dute aldeek. Lau urteko iraupena izango duen akordio honek, nagusiki, lau eduki ditu: hobekuntza sozialak, ordezkariak bermeak, lekualdatze, truke eta eszedentziak, eta formakuntza.

Nafarroak 70 plaza berri sortuko ditu euskaraz irakasteko

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan dagoen defizita nolabait bideratu nahian, Euskal irakasle-entzako 70 plaza berri sortuko ditu Nafarroako Hezkuntza Departamentuak.

Neurri honekin, ikastetxe publikoetan ematen ari den euskarazko irakaskuntzaren igoera nabarmenari erantzun nahi zaio. Aldi berean, prekaritate egoeran lanean dihardutenek aukera izango dute lan finkoan aritzeko.

Sidikatuek arabera, EAeko mila irakasle izango dira deialdiari erantzunez bere burua aurkeztuko dutenak. Horretarako, bi baldintza bete behar dira: Magisteritza titulu edukitzea eta EGA edota balio-kidea izan daitekeen beste titulu baten jabe izatea.

Aurten, hamar ikasletatik seik A edo D ereduetan ikasteko eskaera egin du.

“Gure aurretik bada belaunaldi bat gu baino askoz naturalkiago euskaldun izan dena, euskaldungoan sustraituagoa. Gure ondoren berriz ere beste halakoxe bat datorkeen esperantza dugu”. (Joxe AZURMENDI)

i k a

Herri Urratsen kantak disko batean

Euskararen ofizialtasunaren alde eta ikastolak altxatzeko, eltzegorra (larruzko perkusiozko musika tresna bada ere, gerora adarrari ere horrela deitu zaio) joko dute Seaskako ikastolek aurtan, Senperen.

“Eltzegorra joz” lelopean egingo da aurtan Herri Urrats, maiatzaren 10ean. Iparraldeko ikastolen sustengua aldarrikatzeaz gain, euskararen ofizialtasuna ere aldarrikatuko dute. Ipar Euskal Herrian euskararen ofizialtasunak duen garrantzia eta horrek ikastolen garapenarekin duen lotura izan zuten hizpide Herri Urratseko antolatzaileek aurtengo besta aurkeztean.

Goian aipatu helburuarekin batera, beste bi ere ezarri dituzte. Alde batetik, Iparraldeko ikastolentzat dirua bildu, erakuntza berriak egin eta zaharkituta daudenak berritzeko behar delako. Eta bestetik, “hertsidura ideologiko eta muga guztien gainetik, betiere Ipar eta Hego Euskal Herriko euskaldunak besta giroan bilduz, laguntza eta elkartasuna erakusteko nahiarekin”.

Aurtengoa hamabosgarren aldia izango denez, kantu disko berria kaleratu dute. Bertan, hamabost urte horietan Herri Urratserako asmatu diren abestiak jasotzen dira.



EAEko Lanbide Heziketarako plan berriak aurkezten

Lanbide Heziketarako plan berriak azaldu zizkieten Hezkuntza Saileko teknikariek EAEko zentrotako zuzendariari. Plan berria Europan sortzen ari diren aldaketei erantzuteko prestatu du Jaurlaritzak, etan hurrengo ikasturtean jarriko da martxan lehen zatia, fabrikazio mekanikoari dagokiona.

Oliverik esan zuenez, merkatuaren ekimen produktiboaren barruan aldaketa handiak gertatzen ari dira eta enpresen lehiakortasuna handitzeko asmoz egin da plana. Hezkuntza sailburuak ziurtatu zuenez, ematen ari den egoera aldaketa honi aurre egiteko

modu bakarra “norberaren prestakuntza hobetzea da”.

Epeei dagokionez, zaila bada jakitea zehatz-mehatz zer epetan beteko den plan berria, “prozesu konplexua” baita, baina Oliverik uste du hiru urteko epean Lanbide Heziketarako plana bukatuta egon daitekeela.

Planak hiru ardatz nagusi ditu: Lanbide Behategia, Lanbide Heziketarako eta Gaitzerako Agentzia eta Ebaluazio eta Kalitaterako Agentzia.

Apirilean sortu zen Lanbide Behategia, Donostian. Horren lana izango da gora eta behera doazen lanbideen berri ematea. Horren arabera, une bakoitzaren beharretara egokitu ahal izateko.

Gaitzerako Agentziak, aldiz, adieraziko du zein diren langileek bete beharreko ezaugarriak lanbide bakoitzean jardun ahal izateko.

Hirugarren ardatza Ebaluazio eta Kalitaterako Agentzia izango da. Agentzia hori Industria Sailaren esku izango da eta haren izaera eta zeregina oraindik eztabaidagai daude Jaurlaritzaren barruan. Hala ere, nagusiki egingo dutena hau da: sistema osoko nondik norakoak aztertu eta kalitatearen inguruko irizpidea eman.

Azkenik, Hezkuntzak kalifikazio txartela sortzeko asmoa du. Bertan, langile bakoitzak bizitzan zehar lortutako ezagutza eta lan esperientziak agertuko dira.

GAIA

Antzerkigintza e

Eserlekuetan eseri,
argiak itzali eta
oihala igotzen
denean beste mundu
batean sartzen gara.
Antzerkiak bere
hatzaparretan harrapatzen
gaitu eta begirik kendu
gabe igarotzen dugun une
gozoa, atsegina,
dibertigarria... da nagusi.

Baina nola lortu hori? Jon
Sarastik, EHUko
Dramatizazio Graduondoko
eta Espresioguneko
koordinatzaileak argibide
batzuk ematen dizkigu.
Aizarnako herri eskolako
eta Donostiako Axular
Lizeoko esperientziak ere
baliagarri suerta
dakizkiguke.



eta irakaskuntza

Antzerkia egiten asper ez gaitezen

Jon Sarasti

Dramatizazio Graduondoko eta
Espresio gune koordinatzailea (EHU)

Azken urte hauetan gizarte osoan antzerkiari dagokion arloaren gorakada ederra ari gara bizitzen. Ahal izan duen bezala defendatu den antzerki independente baten, hiltzen utzi zen Euskal Antzerti Eskola baten eta bere kultura aberastu nahi duen gizarte baten emaitza dugu.

Geroz eta profesional gehiago dago antzerki taldeak irakasten eta zuzentzen. Mota askotako talde eta elkarteek programatzen dute ekintza hau eta ondo ikusten da beti antzerkia egitea. Kultura zabal eta anitzentz begira dagoen zentzuzko bide bat dela esan daiteke, baina zulo sakonak daude oraindik ere: programazio iraunkorrek aretorik ez dago, haur ekitaldien aretorik ere ez eta abar. Funtsean, sekula izan ez ditugulako, eta beste zenbaitetan gertatzen den bezala, ezin dugu sortu ezagutzen ez duguna.

Irakaskuntzan, euskaran bezala, gorakada biziagoa da. Argitalpen oso onak daude antzerkia egiteko eskolan. Lehen zikloko haurren eguneroko lanean drama-adierazpena sortu da eta plastika lantzen duten irakasleak ongi prestatuak daude eszenaratzeak sortzeko. Baina goi zikloetan galdu egiten da antzerki kultura hau eta batxilergo iristean

nahasketa dugu nabari. Gure hirietan egiten diren gazte antzerki erakustaldia aspergarriak suertatzen dira bai aktoreentzat eta baita ikusleriarentzat ere. Lan gehienetan, beharrezkoa den irudimen eta freskotasuna falta da.

Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultatean, Dramatizazio Graduondoa sortu da Gipuzkoako Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak finantzatua. Graduondo honen koordinazioa proposatu zidatenean helburua haxe izan zen: Euskal Herrian antzerki heziketa unibertsitarioan dagoen hutsunea betetzea. Eskola eta institutuetan antzerkia lantzeko baliabide batzuk eskatzen dira. Gaurtik aurrera helburua baliabide hauek zeintzuk diren lantzea litzateke.

“Irakaskuntzako edozein antzezpene-tan izan behar dugun helburu bakarra aktoreen gozamina da”

Lehenengo eta behin, irudimena landu behar da. Irudimena garatzeko, baldintzak oinarri laburtu behar dira. Hau da, adierazpena edo espresioa mami huts bihurtu behar da. Hau antzerkigintza mota oso baten gako da, pantomima eta mimikarena, alegia. Oinarrizko mamia gizakiaren funtsezko beharrei lotuta doa, munduaren ikuspegi xalo batera, gauza bakoitza lehenengoz bezala deskubritzera. Gure eta gure inguruaren arteko harremanak mami laburtzera jolastea, antzerkiaren oinarrizko gako da.

Ikusleria eta antzezleen arteko harremana

Tristea da, benetan, emanaldi askotan ikusleen artean prentsa kritikoa edo kultura arduradunak nortzuk diren eza-gutzea; epaitzera etorri baitira eta ez dute hitzarmena onartzen. Sarrera debekatu beharko litzaieke.

Antzezpen guztiek hitzarmen bat daukate eta hitzarmena naturaltasunez erabiltzen denean, aretoarekin sortzen den magia paregabea da, gaur egun beste inon gertatzen ez den harremana.

Adibide argiena, haur antzerkiarena da. Adibidez, Perutxo antzezlanean Perutxo heroiak Ramuntxok (talde pertsonaia) sendatzeko duen sendagaia lortu du, Sugoi eta Kaltzagorri (talde pertsonaia) lotan dauden bitartean. Isil-isilik eszenatokiko alde batetik bestera eraman behar du. Hitzarmena honetan datza: batetik bestera doan aktorea erortzen bada, ikusleek bere izua bereganatzen dute. Irudikatzen jarraitu eta eszenatokiko beste aldera iristen bada ikusleriak ikaragarri goza-



tuko du, gure aktorea buru-belarri aritu baita.

Aktorea erori eta ikaraz ikusleriari begiratzen badio, banbalina artean dau den bere kideak begiratu edo farre egiten badu, ikusleria "ooh" esan eta penetan geratuko da, aktoreak hitzarmena hautsi duelako. Pertsonaiatik irteteak hitzarmena hautsi du.

Esan dezagun emanaldi batean pentsatzen dugunean, gure helburua ikuslea antzeppen hitzarmenean sartu eta mantentzen erraztea dela. Ikusleak bidearen zati bat egiten du, antzeppenak bestea; kontaktu punttua ilusio-plazer punttua da. Puntu hori ikusleriarengandik zenbat eta gertuago egon, orduan eta errazagoa izango da ilusioa sortzea. Horrek lan gehiago suposatuko du antzezleentzat, baina ez da hain zaila. Hona hemen eman dugun adibidearentzako zenbait klabe:

- Ilusio eremua: ez da eremu erreala, eszenatoki bereberan bi mundu kontrajari sartzen dira eta ezinbestekoa da argi markatzea (mugimenduak, arnasketa, begirada, hitz egiteko era, erritmoa, aktoreen arteko guneak, eta abar).

- Gauzeekin dagoen harremana: gauza bat aktoreak adierazten duen itxura izango da, tamainua eta balioa. Ikusleak, hasieran azaldu eta bukaera arte mantentzen den edozein "egia" onartuko du.

- Talde pertsonaia (irtenbide bikaina): antzoki batean dagoen talde batek edo zer gauza irudika lezake: bai eskutitz, auto edo muntstroa, bai eta herri bateko

biztanle, ardi edo apaizak. Geroz eta nekatuago dauden japoniar turistek ondo adierazten du kontzeptua.

Baina bi erabilera daude. Adibidez, herritxo baten bizitza irudikatu nahi badugu nekazaria, saltzailea, haurra, garbitzailea, apaiza, amona eta txakurra jarriko ditugu. Denek talde pertsonaia osatuko dute eta zerbaitek eguneroko bizitza aldatzen badu, pertsonaia bakarra balira bezala erantzungo dute.

Guztiak nekazari bihur ditzakegu, gero saltzaile eta erosle, gero haur eta zakur. Pertsonaia hauetako bakoitzak era ezberdinean erantzungo dio estimulari.

Antzezteko modu anitz daude

Antzerki bat egiteko orduan lan desberdinak taularatu daitezke eta modu ezberdinetara. Teknika edo baliabide anitz daude eta horietako batzuk hauek dira:

1.- Eszenan idatzitako antzeppenak

Irudikatu nahi dugunak, testu literarioa izan, sortutakoa edo mutua, ezinbestekoa du gidoi bat izatea eta ahalik eta osatuena gainera. Entseiu materialek egindako talde sormenak, gaztetxo-en konpainientzat aproposak izaten dira. Hizkuntzaren erabilpen, keinu eta kodigoak txikitu eta errepikatu egin daitezke, musikaz bustiz eta koreografia pittin batekin. Horrela arrakasta ziurtatua izango du.

Hala eta guztiz ere, fikzioa ez den fikzio bat emanez eta ikusle aurrean errealtate bat biziz, antzeppen hitzarmena

eraikitzeke lana ezinbestekoa da: pertsonaia (beraien izaeretan) ezagunak izan behar dute, testuak entzuteko erosoak, gunean ondo bereziak eta eszena (mugimenduak, gauzak) garbia.

2.- Ipuinak objektu biziarekin

Pertsonaia batean bihurtzeko aktoreari, zuzendaria-autorearen bikoizteko aukera ematen dio, eta teknika on eta emankorra da: edozein objektu edo pertsona erabilia edo manipulatu izan daiteke kanpotik ahotsa eta mugimenduak emanez aktore bat edo batzuen artean. Haurrentzat zaila bezain pizgarria izango da, gazteentzat gozamenak.

3.- Fikzio egoerak

Kontatzen ari garen horretan denbora salto bat badago, edo bi garai edo bi leku ikusi nahi baditugu eszenatokian, batetik besterako aldaketak argi eta garbi utzi behar ditugu (musika edo argiak edo isiltasuna erabiliz).

Aktore bat zuzenean ikusleriarekin harremanetan jartzen bada ("aparteak"), argi eta garbi egin behar du; gerritik beherako mugimenduak ezik, besteak garbiak eta handiak eginez.

Adibide hauekin guztiekin eszenaren errealismoari pisua kendu nahi izan diot. Nire ustez, eskola eta gazte antzerkian errealtate onena berezko eszena joko da. Joko hau da landu behar dena, fikzioa ondo garatu eta ikusleari ilusio eta plazerera eraman.

Irakaskuntzako edozein antzezpenean izan behar dugun helburu bakarra aktoreen gozamenak da. Aktoreak gustura egotea eta hitzarmenean dagoenarekin jolastea lortzen badugu, gozamen hori ikusleriarengana iritsiko da.

Horretarako helmuga xumeak aukeratu behar ditugu. Gidoi motzak erabili behar ditugu eta eszena bakoitza errepikatu, horrek jolasteko aukera emango digulako.

Debekatuak egon behar dute ulertzen ez diren testuak, besterik gabe buruz ikasitakoak, kontrol gabeko mugimenduak eta behartutako paraliak. Hau da, debekatua dago antzeppen bat aspergarri bihurtzen duen guztia. Antzeppena festa bat delako, talde festa bizia eta guztien arteko harremana pizten duena.



Lukas Dorronsoro
Irakaslea eta antzerkizalea

GAIA

Antzerkigintza eta irakaskuntza “Niretzat antzerkia pedagogiaren funtza izan da”

Antzerkiak ba omen du betirako berari lotuta uzten zaituen magia edo pozoin bereziren bat. Lukas Dorronsoro gazte-gaztetandik gelditu zen loturik eta oraindik ere hurbiletik bizi du antzerkia. Bere irakasle lanean eragin handia izan du afizio horrek eta Aizarnako eskola txikian igaro dituen azken 13 urte hauetan ingurukoak ere “afizionatu” ditu.

Ikasleekin egon zaren urte luzeetan antzerkia oinarrizko tresna izan da zuretzat. Antzerkiari izatearen ondorio izan al da?

Bai, noski. Irakasle bakoitzak erota egon behar du, ero puntu bat eduki behar du antzerkian, pelotan, bertsolaritzan edo beste zerbaitetan. Orduan izango da irakasle on xamarra, ona ez baitakit inor ba ote den. Nik uste dut hori dela klabea, eta nire kasuan antzerkia da ero puntu hori eman didana.

Erutzen dena jeinu bihurtzen da erotasun horretan, halako jeinutasun bat izaten du. Eta hori daukanak landu egin behar du, besteei irakatsi.

Nola landu izan duzu zuk antzerkia ikasleekin?

Ez dut aparteko ikasgai bezala landu, ikasgai guztietan txertatuta baizik. Klaseak ematerako orduan hurrekin jolas egiten saiatu naiz, beraiekin egiten eta bapatekotasunari leku egiten. Bestela, haurrak aspertu egiten dira. Behartuta etortzen dira eskolara eta klase barruan giro hori mantenduz gero behartuta egiten dute lana. Haurrak erabat kastratzen dira eta beraien garapena inposizioz doa aurrera.

Hori gerta ez dadin, hurrek gustura sentitu behar dute eta antzerkiaren bidez lortu dut hori nik. Urtero-urtero antzerki obra bat prestatu izan dugu eta herrian zein herritik kanpo taularatu.

Gustura egiten den gauza izateaz gain, zertarako balio izan dizu antzerkiak hurrekin?

Lehenengo eta behin, hizkuntza lantzeko. Hizkuntza ikasteko biderik onena da antzerkia. Obra asmatu, idatzi eta askotan inprobisatu egiten dute eta oso metodo ona da hizkuntza ikasteko. Ez dago hori bezalako gramatikarik. Adjetiboa zer den, aditzaren formak zeintzuk diren eta abar ikasten da gidoia idazterakoan, zuzentzerakoan eta berridazterakoan. Adibidez, 2. pertsonan idazten badute eta hari hitz egin behar badiote, 3. pertsonan idatzi behar dutela esanez zuzentzen diet eta horrela izugarri ikasten dute.

Horrez gain, antzerkiak harremane-

“3 urterekin antzerkia egiten hasi eta 6. mailara iristen den haurrak izugarrizko nortasuna dauka”

“Hizkuntza ikasteko biderik onena da antzerkia. Obra asmatu, idatzi eta askotan inprobisatu egiten dute eta oso metodo ona da hizkuntza ikasteko”



tarako, publikoaren aurrean agertzeko, ahoskatzeko eta abar balio du.

Gorputza lantzeko ere bitarteko egokia izan daiteke, ezta?

Bai, hala da, baina nik ez ditut ariketa fisiko sistematiakoak egiten hurrekin. Hori soinketan, jolasteko orduan eta abar lantzen dute. Bapatekotasunean eta naturalki ateratzen diren mugimenduetan oinarritzen naiz eta hortik abiatuta lantzen dugu gorputza: begirada, aurpegia...

Gidoia beti hurrek idazten al dute?

Ez beti ez, adinaren arabera. Txikienak ipuin batean oinarritzen dira normalean, eta zaharragoak direnak beraiek idazten dute, bai.

Eta gainontzekoa, murala, eszenatokia, arropak... beraiek ardurtzen al dira horretaz?

Hori denboraren arabera egon ohi da. Antzerkia egun jakin baterako prestatu behar bada, denbora gutxi egon daiteke dena egiteko: gidoia ikasi, entseiuak egin eta muralak prestatu. Dena dela, denbora izanez gero, merezi du muralak egiteak. Izan ere, gauza asko landu eta ikasten dira muralak egiterakoan. Adibidez, argazki bat hartu eta hori margotu behar bada, neurtu, laukiak egin, eskala kontuan hartu eta abar egin behar da. Berehala ikasten dute cm eta mm-ak bereizten, behar duten gauza baita.

Dena dela, zu Aizarnako eskolan ibili zara eta adin desberdinetako haurrak batera eduki dituzu. Ze abantaila eta desabantaila ditu horrek?

Desabantailarik ez diot ikusten adin

desberdinetako haurrak elkarrekin egotterari, eta abantailak bai. Handiek txikiekin ikasten dute eta txikiek handiekin. Handiek txikiei eskua botatzen die eta gauza asko ikasten dituzte txikiekin.

Txikiek bestalde, handiagoei ematen dizkiedan azalpenak entzuten dituzte eta hurrengo urterako badakite zerbait. Entzun dute eta ez dut zerotik hasi behar azalpenak ematen, informazio pixkat jasoa daukate. Elkarrekin egonda gauza asko ikasten dituzte, bai zuzenean eta bai zeharka. Oso aberatsa dela iruditzen zait.

Zer eskaini dizu zuri antzerkiak?

Niri oso etekin onak eman dizkit hurrekiko harremanean. Nire harremanean funtsa izan da. Hurrek antzerki asko egiten dute eta nik ere bai. Nirekin oso antzerkizaleak dira, beste batekin pelotazaleak izango lirakeen bezala.

Niretzat haurrak ez dira haur, nirekin dauden pertsonak baizik eta harremana desberdina da. Momentu askotan ni ere haurra naiz, haur sentitzen naiz. Hurrekin ibiltzen naiz eta hurrekin erabakitzen ditut gauzak.

Eta antzerkiak sortutako harreman berezi horrek zer eskaintzen die hurrei?

3 urterekin antzerkia egiten hasi eta 6. mailara iristen den haurrak izugarriko nortasuna dauka. Naturalki garatzen da haurren nortasuna antzerkiaren bidez. Horrez gain, taldean egin beharreko lana da eta errespetu handia diote elkarri. Bakoitzak bere lekuan agertzen du bere burua eta harremana oso zintzoa da.

Antzerkia, beste gauza guztiak bezala, pertsonaren garapenarekin batera joan behar duen zerbait dela uste dut. Lortzen diren gauzak izugarriko oinarria dute.

Nortasunaren garapena lortzearekin batera antzerki mundua ere ongi ezagutzera iritsiko dira 3 urterekin hasten direnak.

Bai, hala da eta kritikak egiten ere ikasten dute. Antzerkigintzari dagokionez asko ikasten dute. Beste emanaldiak ikustera joaten direnean berehala konturatzen dira ahoskeran, jarreretan...

Behin antzerki ikastaro bat ematen ari ginen irakasleen artean eta egun batez Aizarnako eskolara etorri ginen. Hemen go hurrek antzezlan bat eskaini zien irakasleei eta hauek sketx batzuk hurrei. Eta ba al dakizu zer erantzun zuten hurrek irakasleek nola egin zuten galdetu ondoren? "Bai, guk baino hobeto egiten dute, baina hori ez da konturatu beste baten atzean egon dela eta ez genuela ikusten". Beraz, detaile guztietaz jabetzen dira.



Donostiako Axular Lizeoan ere antzerkiak badu bere lekutxo. Behe zein goi mailetan lantzen den arloa da, nahiz eta presentzia eta helburu desberdinak izan bakoitzean. Jesus Mari Ansuategi irakasleak azaldu digunez DBH, BBB eta UBIn eskaini izan da orain arte. "DBHn gehienbat ikastetxeko irakasle batekin landu izan da. Talde bakoitzak bere obra prestatu eta eskolan bertan aurkeztu izan da". Curriculumaren barruan dagoen ikasgaia da antzerkia.

DBH 3. mailatik aurrera, ordea, antolaketa aldatu egiten da Axular Lizeoan. "Duela bospasei urte Donostian antolatzen diren Gazteen Antzerki Topaketetan parte hartzen hasi ginen eta orduan eskolaz kanpoko aktibitate bat bezala sortu genuen Antzerkia" dio Jesus Marik. Hasieran curriculumaren barruan sartzea nahi bazuten ere, antolaketa arazoak zirela eta eskolaz kanpoko ekintza bezala utzi beharra izan zuten.

Astean behin bi orduz elkartzen dira antzerkizaleak. 15 urtetik gorako ikasleak biltzen dira eta maila guztietakoak. Irailean hasi eta apirila-maiatza aldean ospatzen diren Topaketetarako obra prestatu arte Elene Sustatxa begirale eta arduradunaren esanetan jarduten dira.

Nola definituko zenuke eskolaz kanpoko antzerki aktibitate hau? Antzerki tailerra dela esan al dezakegu?

Berez ez da antzerki tailerra. Ez ditugu antzerki ariketak egiten, gorputzaren espresioa lantzen eta abar. Gure helburua Gazteen Antzerki Topaketetarako antzezlanaren prestatzea da. Hasiera-hasieratik planteamendu horrekin antolatua dago gainera, emaitza hori emateko.

GAIA

Antzerkigintza eta irakaskuntza

Donostiako Axular Lizeoaren esperientzia

Horrek presio pixkat egingo du lana egiterako orduan, ezta?

Bai, noski. Astean behin elkartzen gara bi orduz eta antzezlanaren prestatzetik kanpo ez du gauza asko egiteko aukerarik ematen. Obra aukeratu, paperak banatu eta entseiuak egiten hasi. Irailean hasi eta apirila berehala etortzen da.

Denbora gehiago edukiz gero, beste planteamendu bat izango al luke aktibitate honek?

Bai, ez genuke horrelako presiopean lan egingo eta lehen aipatutako antzerki ariketak, gorputzaren espresioa, mugimenduak, jarrerak, ahoskera eta beste hainbat gauza lantzeko aukera egongo litzateke. Lan honen ondorio bezala zerbait aterako litzateke, baina beste maila batean, inon aurkezteko presio eta beharrik gabe.

"Gaur egun telebista, zinea eta irudien kulturak "kutsatuta" bizi gara eta antzerkiak beste hizkuntza bat dauka. Horregatik da zaila antzertilanak idaztea"



Argazkian, Billabonako "Fleming" ikastetxeko ikasleak

Dena dela, orain ere emaitza ikusten da eta Topaketetako emanaldia horren lekuko da. Azken unera iristeko zein prozedura jarraitu duzue?

Aurtengo kasu berezia izan da. Hasieran Iuneskoren obra bat egiteko asmoa genuen, baina ikasturteak aurrera egin ahala, bi pertsonak etortzeari utzi zioten. Beraz, bost lagun gelditzen ziren eta obra hark ez zuen balio.

Orduan geuk asmatzea erabaki genuen eta gidoia idazteari ekin genion. Batek gidoiaren eskema asmatu zuen: zer gertatzen zen eta nola bukatzen zen. Gero zergatiak, nondik norakoa eta prozesua egunetik egunera egin dugu.

Eta baliagarria suertatu al da antzezteko?

Gauza batzuk ez zutela funtzionatzen konturatzen ginen, zerbait gehiago asmatu behar zela, elkarrizketak aldatu eta abar. Eszenak inprobisatzen genituen, gustatzen zitzaiguna eta funtzionatzen zuten gauzak hartuz.

Beraz, ez da dirudien bezain erraza antzerki obra bat idaztea.

Ez, oso zaila da. Dramaturgia lana egin behar da hasieratik, norbera denaz ahaztu eta pertsonaien paperean sartu. Gainera, kontua eduki behar dugu gaur egun telebista, zinea eta irudien kulturak "kutsatuta" bizi garela eta antzerkiak beste hizkuntza bat dauka. Baina pixkanaka-pixkanaka ahal duguna egin dugu eta beraiek idatzitako antzezlan izanik ilusio gehiagoz aritu dira.

Nola moldatu zarete, bada, aurtengoan?

Klase ordutik kanpo denez jendearen parte hartzea baldintzatuta dago eta askotan kosta egiten da jarraikortasuna lortzea. Bat falta bada, hurrengoan beste bat eta hurrengoan beste bat, ezin da lanik egin. Horrek asko mugatzen du, denon artean egin beharreko lana baita.

Taldearekiko konpromezua eskatzen du antzerkiak beti. Eta horrez gain, taldean ondo konpotzea eta ezagutzeak ere eragina izango du, bada.

Dudarik gabe. Ni iaz hasi nintzen talde honekin eta aurten hobeto ezagutzen ditut. Hobeto ezagutzen dugu elkar eta gusturago gabiltza.

Bestetik, taldea ondo ezagutu behar duzu eta beraiekin ondo moldatu beraien antzezlan bat interpretatzeko. Eta hori lortu dugu aurten.



Argazkian, Kanboko Xalbador ikastegiko ikasleak

elkarizketa

MARIJE URANGA

“Ez dugu nerabeez hitz egin behar, familia nerabeez baizik”



Marije URANGA

MARIJE URANGA



**“Nerabe
eta gurasoen
artean oposizio
indarra dago.
Elkarren
kontra egiten
dugu indarra,
batzutan
indartsuago
eta bestetan
ahulago”**

Familia terapeuta den emakume honek urte asko daramatza irakaskuntzan. Ez da irakaslea, aholkularia baizik. Guraso, ikasle eta irakasleei aholkuak ematea gustukoa du bere jakituria eta esperientzia oinarriturik. Marijerentzat erakargarria da edozein adinetako neska-mutuez hitz egitea eta interesa duten gurasoengana hurbiltzea.

Kasu honetan nerabeez aritu da gurekin. Guraso eta irakasleak hainbeste kezkatzen gaituen etapa horretaz.

Nerabeekin lan asko eginga zara eta esperientzia baduzu. Nolakoak dira nerabeak?

Trantsizio edo aldaketa handiak izaten dituzten gazteak dira. Aldaketak biologikoak, hormonalak, psikologikoak eta sozialak izaten dira. Nerabetsuak maila guztietan du eragina. Baina nerabeez hitz egitea ez da erreala.

Zergatik diozu nerabeez hitz egitea ez dela erreala?

Nerabeak bakarrik ez direlako aldatzen direnak. Nerabeengan dauden aldaketek familia osoari eta bere inguneari eragiten diote. Gelan, koadrilan, etxean... nabaritzen da aldaketa.

Horregatik, nerabeez ez, baizik eta familia nerabeez hitz egiten dut nik.

Zer esan nahi duzu familia nerabearekin, zer da?


Kanpotik eta azalean begiratzen badugu nerabea bakarrik ikusiko dugu. Baina nerabe hori familia batean bizi da. Beraz, familia osoa aztertzen hasten bagara, berehala konturatuko gara ez dela nerabea aldatzen den bakarra, familiako beste kideak ere bai. Horregatik erabiltzen dut familia nerabearen kontzeptua. Azalean ikusten denetik haratago joan behar dugu eta barrukoa aztertu, fatxadaren barrua.

Eta zer ikusten duzu fatxadaren barruan?

Lehenengo eta behin, familiaren genograma: gurasoak, seme-alabak, aiton-amonak... Denak elkarren atzetik daude eta ezin dugu pentsatu nerabeak gurasoekin zerikusirik ez duenik. Nerabea ez da bapatean sortu, gurasoei loturik dago. Horregatik, nerabeez hitz egiterakoan eta zor diogun errespetuagatik, non dagoen kokaturik jakin behar dugu.

Hor barruan nerabea etengabe aldatzen eta dena mugitzen ari da. Baina nerabearekin batera familia osoa ere bai.

Antzeko genogramak balioko luke irakasleentzat ere. Nerabeak gurasoengan duen eraginaz jabetuta, nola ez dute bada irakasleengan eragingo hainbeste neraberekin, bakoitza bere eragin bereziarekin gainera, tratatzen dutelarik.



Beraz, nerabeak, gurasoak, irakasleak... guztiak hartu behar dira kontuan nerabeez edo familia nerabeez hitz egiterakoan. Banaka-banaka hartuz, nolakoa da nerabeen egoera?

Hasteko, iraultza hormonal baten ondorioz gorputza aldatu egiten zaiela esan behar da eta hori ezin dute kontrolatu. Ezezagun sentitzen dira beraien gorputzean. Lehenengo eta behin horri egin behar diote aurre.

Bigarren duelua gurasoekin izaten dute, gurasoek haurrak nahi baitituzte. Guraso horiek beti prest daude seme-alabak nahi duena egiteko. Nerabeak hori nahi du, baina era berean ez du nahi. Erosoa suertatzen zaio, baina haurra dela gogorarazten diote etengabe.

Hirugarren erronka bere buruarekin duena izango da. Dagoeneko ez du haurraren identitaterik, baina oraindik helduarena ere ez. Geldiune batean dago. Nerabeak heldua izan nahi du, baina ezezaguna sentitzen da. Gaur nahi duena bihar ez du nahiko.

Aldaketa horiek justifikatzen al dute nerabeen portaera?

Baietz esango nuke. Nerabeak probatu egin behar du etengabe. Ez daki zer nahi duen, baina erabaki aurretik probatu egin behar du. Horregatik, bi modutara erreakzionatzen du: depimitu egiten da edota jokatu egiten du. Eta noski, jokatzea, zarata ateratzea eta dena mugitzea da. Inguruko presio guztia jasanezina egiten zaio.

Zenbateko garrantzia dute emozioek momentu hauetan?

Handia, dudarik gabe. Askok dira pseudo-heldutasuna dutenak, baina emozionalki ukiezinak dira. Horregatik, nerabeei emozioez hitz egin behar zaie. Oraindik ere gurasoen beharra dute. Beraiek gurasoengandik bereiztu nahi dute, baina ez dakite nola. Horregatik, portaera kontrajarri horiekin aldentu nahi izaten dute.

Gurasoak zein egoeratan ikusten dituzu?

Gurasoen elkarrekiko bizitzan lau etapa daude:

- 1- Bikote aukeraketa.
- 2- Ugaltze etapa, hau da, seme-alabak izatea.
- 3- 40 urte inguruko krisia.
- 4- Zahartzaroko krisia.

Normalean seme-alabak nerabeak direnean gurasoek 40 urte inguru izaten dituzte, beraz, hirugarren krisi egoera horretan daude. Hau da, gauza pertsonal asko daude, atzera begiratzeko da bizitzari erreparoa emanez... krisi egoera bat da eta justu momentu horretan daude nerabeak ere dena mugitzen.

Orduan, gauzak zaildu egiten dira, baina hiruzpalau urte irauten du nerabetasunak eta ulertzeko esfortzua egin behar da. Ez da erraza, baina genogramako historia guztiagatik, ez nerabeagatik soilik.

Nolakoa da guraso eta nerabeen arteko erlazioa?

Nerabe eta gurasoen artean oposizio indarra dago. Elkarren kontra egiten dugu indarra, batzutan indartsuago eta bestetan ahulago. Nerabeak indar egiten digunean, batzutan geldiarazi egiten dugu eta bestetan pasatzen utzi. Momentu batzutan autokratik izan behar dugu eta beste batzuetan demokratik. Hegazkin batean pilotuak zer egin behar duen galdetzen badit, nik autokrata izateko eskatuko diot, niri ez galdetzeko, ez baitakit. Nerabeak ere berdin. Galduta daudenean helduleku bat behar dute, eta kasu horietan helduok autoritarioak izan behar dugu, gidatu egin behar ditugu.

Garai honetan ez da erraza indarra orekatua mantentzea, baina lehen esan bezala erlazioa gehiago ez estutzen saiatu behar dugu. Beraien lekuan jarri eta ulertzen saiatu behar dugu.

Horretarako, zein izango litzateke eman beharreko lehen pausua?

Harrera. Nerabeekin daukagun erlazioan harrera oso garrantzitsua da. Egiten dugun harrerak etorkizuna baldintzatzen du. Gau batean mozkortuta etortzen bada, ondo hartu behar dugu eta oheratzen lagundu. Hurrengo egunean, lehenengo gauza galdetzea izango



da. Zaila da hurrengo egunean hitz egitea, baina horrek lantzen du erlazioa.

Baina askotan gauza guztietaz "paso" egiten dutela ikusten da. Nola egin aurre egoera horiei?

Ez, nerabeei ez dute "pasatzen" ezer. Hori ez da egia. Ez dute "pasatzen", baina ezin dute jasan gaineko presio guztia. Fantasia geldiezin dute, probatzeko beharra, sentitzeko beharra eta abar. Tentsio hauek jasan ezin dituztelako jokatzeko dute jokatzeko duten moduan. Gora-behera handiak dituzte, baina horrek ez du esan nahi balorerik ez dutenik. Badituzte, ez gureak bezalakoak, desberdinak baidiz, baina baloreak dira.

Egoera zail horietan denbora ematea da garrantzitsua, bai nerabeei eta baita guraso eta irakasleei. Nerabetasuna desdramatizatu nahi dut nik, baina ez ezereztu. Toleratzen edo onartzen ikasi behar dugu eta egoerei aurre hartzen.

Eta zer da toleratzea?

Toleratzea seme-alabei nik egiten dudana ez gustatzea da eta niri ere ez zait gustatu behar beraiei gustatzen zaiena. Nerabeak nahi dutena izango dira, eta guk horrela izaten utzi behar ditugu. Gure iritzia eman bai, baina nahi dutena izaten utziz.

MARIJE URANGA



“Irakasleon zeregina konpromezua da. Laguntzeko modurik onena beraiek gu hor gaudela jakitea eta sentitzea da”

Arazo konduktualak dituzten nerabeei dagokienez, zer iritzi duzu?

Kasu horietan sintomatologia desberdina da eta arazoak konpontzeko planteamendua ere bai. Gurasoak, irakasleak eta espezialistak elkarrekin bildu eta lan egiteko modua diseinatu behar da kasu hauetan.

Orokorrean non kokatzen gara irakasleok nerabeekiko erlazioan? Zein da gure zeregina?

Irakasleon zeregina konpromezua da. Ezin dugu esan nire seme-alabak ez direnik edo nik ordubete soilik ematen diedanik eta utzi. Irakasleak nerabe horrekin konprometitu behar du. Bestela neska-mutil hori galdu egingo da. Edo denok hartzen dugu konpromezua neska-mutil hauek aurrera ateratzeko, edo ez dira aterako.

Noraino heldu behar du konpromezu horrek?

Neska-mutilek halako radar emozional bat dute eta berehala konturatu dira nork estimatzen dituen, nork laguntzen dien eta abar. Hala ere, ez dute onartzen lagun izatea, konprometitu bai, baina lagun izan gabe. Beraiek nahi dutenean lortuko dugu lagun izatea. Nerabeek enroilatzea eskatzen dute. Adibidez, bakailu musika ekartzan badute klasera, guk entzutea eskatzen dute.

Orduan, hori da nerabeei laguntzeko modua?

Bai, laguntzeko modurik onena beraiek gu hor gaudela jakitea eta sentitzea da. Matematikako irakasle batek, adibidez, ez du klasea eman eta alde egin behar, hor egon behar du nerabeei entzuten, ulertzen. Hori da nerabeek behar dutena. Beno, eta hau bai irakasleen kasuan eta baita gurasoen kasuan ere.

Baina hala ere askotan ez gara gai nerabeekiko harreman edo konplizitate hori lortzeko. Helduok al gara horren errudun?

Ez, errudun ez, baina bai arduradun. Nerabeekin egoten eta ulertzen saiatu behar dugu. Hori da gure ardura.

Bai, baina horrek ez du esan nahi nola jokatu behar dugu badakigunik. Askotan gurasoek ez dutela ezer egiten eta ez dakitela ezer esan ohi dugu. Irakasleok ere gauza bera. Baina denok elkarrekin lan eginez gauza asko lortzen dira. Sistema batzuk ezarri eta denon artean lan egin daiteke.

Momentu batzuk oso zailak izango dira, eta horietan profesionalei galdetu behar zaie. Guk ezin badugu, laguntza eskatu behar dugu. Hori ez da batere txarra.

Gogorra eta zaila da nerabeekin lan egitea, baina emaitzak ikusten dira. Bankuan bezala, gauzak pilatuz joaten gara eta denbora pasa ahala jasotzen dugu bildutakoa.



GEHIGARRIA

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

28

Musika herrikoia hezkuntzan

Juan Mari Beltran
eta
Mixel Etxekopare

Musika herrikoia hezkontzan



Juan Mari Beltran
Musika irakaslea

Euskal Herrian soinu tresna ugari erabili izan dira historian zehar. Bai eta kantu, abesti eta ipuinak ere. Gaur egungo gizartean, ordea, ez dute lehen zuten erabilpen eta funtziorik. Tresna horiek galtzen ari gara eta horren aurrean zerbait egin behar da. Gizarte mailan, etxean, eskolan... bakoitzak dagokiona egin behar du berreskurapen lan horretan. Juan Mari Beltran musikariak irakasleon zeregina zein den azaldu digu. Euskal soinu-tresna herrikoiak zabaltzea eskolaren lana soilik ez dela aitortzen du, baina gure apurra eman dezakegula ere bai. Hona hemen bere proposamena.

Euskal soinu tresna herrikoien zabalkundea hezkuntza sarean

Euskal Herrian soinutresna ugari erabili izan dira historian zehar, haue-tako batzuk sinbolo izatera iritsi dire-larik. Herri honen identifikagarri bezala ere erabiliak izan dira.

Herriak bere behar musikalak bete-ak izateko soinutresna hauen premia izan du, eta era batera edo bestera musika eskaintza-eskarin oreka bat mantentzen joan da denboran zehar.

Horrela izan da, gutxi gora-behera XX. mende hasiera arte. Orduan gertatzen da kultura komunikatzeko era-ren aldaketa, bai zabalkundeagatik eta baita teknikaren aurrerapenagatik ere (irratia eta telebista). Honen ondorioz, munduko gure inguruan, herrietako kultura autoktonoetan atzerapausoak ematen dira. Honekin batera, balorazio irizpide aldaketa sakona jasan da eta honek eragin nabarmena izan du herri musika eta soinutresnengan.

Gure herri musikaren egoera

Gaur egun, eta batez ere mendebaldeko herrialdeetan, kulturaren zabal-tze sistemak asko aldatu dira. Jadanik ez dira belaunaldiz belaunaldiko komunikazio era posible egiten zuten lehengo baldintza haiek ematen. Informazioa beste bide batzuetatik jasotzen da (idatzia, irratia, telebista, musika grabazioak...), hau ugariago eta zabalago da, nazioaren muga berberak ere gainditzen direlarik.

Honek eragin du, besteak beste, musikan, itxura estetikoak gero eta uniformeagoak izatea.

Aurrekoarekin batera, aipatu behar dago, herriaren parte hartze aktibo eta zuzena txikiagoa dela.

Horregatik, azkenaldian hainbat eta

hainbat musika hizkuntz berezi galduak dira, eta honek eragin du, herri askotako ondarearen atzerakada hain era nabarmenean garatzea.

Bizitzeko, harremanak izateko eta komunikatzeko erak izan dituen aldatetak, aurreko ohiturekin loturiko zenbait elementu kulturalen eragin-kortasunean (hala nola, dantzetan, abestietan eta nola ez hauei bizitza ematen zien soinutresnetan) galerak ekarri ditu.

Musikan, jadanik lehenengo urratsak ez dira zuzenean ematen, lehen bezala ahotsak eta inguruko soinutresnak entzunez.

Sehaskan dagoen haurra lasaitzeko edo motibatzeko erabiltzen ziren abestiak, diska eta kasete komertzialek baztertu dituzte.

Gaur egun, gure inguruan, haurrak ez dira garai batean bezala ama-amonaren besoetan hazten.

Ama-amonaren besoetan hazi den haurrak zuzen zuzenean entzun dituen kantuen bitartez, bestela lortuko ez lukeen zenbait balioaren garapena lortzen du (entonaziorako, erritmorako, dantzarako... gaitasuna). Hori guztia abesterakoan egiten diren gorputz mugimenduen, kantu monodiko edo polifonikoen eta abarren bitartez lortzen da. Nabarmenena da, hau guztia mantentzen den herrietako haurren musikarako ahalmena handiago dela. Alderantziz, hau guztia gure inguruan galdua da, eta bertako haurrengan duen eragin ezkorra argi ikusten da.

Haur jolasak ez dira partehartzaileak abesturiko doinuen bidez egiten. Jadanik ez dira erritmo, tinbre eta linea melodiko ezberdinak ezagutzen hasteko soinuzko jostailurik egiten. Aldaketa hauekin batera, psikomotrizitate-

aren eta gorputz trebetasunaren garapenean, abesteko eran, materialen eta beren soinu ezaugarrien eta soinutresnen erabileraren ezagutzan galerak jasan dira.

Gazteek, berriz, ez dute lehen bezala beraien festa eta bileratxotan abesten. Orain, gehienetan, grabaturik dagoen musika entzutera mugatzen dira.

Gauza bera gertatzen da, besteak beste, lana (bai lanera joateko, itzultzeko edo egiteko, erritmoa markatzeko erabili izan diren kantu eta doinuak), urtaro (urtaro aldaketak ospatzeko festak, besteak beste udaberri-ihauteriak, uda-San Juan, udazkena-San Martin, negua-eguberriak), uzta (lurra esnarazteko, eguraldi egokia lortu ahal izateko, eta bestelako ekintzak), gizarteko gertaera ezberdin eta abarrekin lotua dagoen musikarekin.


Beraz, musika, pertsona eta gizartearekin zuzenean harremanetan zegoen. Orain, bere bizitzan parte hartzen zuen musika, gutxi batzuek egiten duten musikaren kontsumora aldatu da, bai familian, baita gizartean ere. Ondorioz, forma musikalen aniztasuna egunetik egunera txikiagoa da eta komenigarria izango litzateke atzera begiratzea, lehen zegoena ezagutzeko. Argi izan behar dugu ez direla egoera haiek berriro egokituko, baina, oraindik irauten duena mantentzen eta galdu denaren alderdirik baliagarrienak berreskuratzen saiatu beharko genuke.

Berreskuratzen lana hezkuntzan

Orain arte aipatutako aintzat harturik, soinutresna autoktonoak berreskuratzeko bi betebeharrak ditugula ikusten dut:

1.- Zabaltzeko orokorrari dagokiona. Hau da, ezagutarazi egin behar dira: nolakoak diren (eraketa eta funtzionamendua), nolakoa den bere hotsa, bere musika, zertarako, noiz eta non joa izan den, nork eta nola... Laburtuz, osotasunean ezagutarazi behar da soinutresna hauei dagokien guztia.

2.- Soinutresna hauek egingo dituztenen eta baita joko dutenen formazioaren berreskurapean eta jarraipena posible egingo duten neurri egokiak



ezarri behar dira.

Gaur egun ez dagoen giro eta inguru hori lortu ahal izateko baliabide berri eta egokiak aurkitu beharko ditugu, garrantzitsuenetariko bat IKASTE-TXEAK izan beharko lukeelarik.

Ikastetxeek, beraien musika programaren barnean honako sailak sartu beharko lituzkete:

* **Ikuspegi akustiko-musikal batetik egindako gure organografia herrikoari buruzko ikerketa:**

“Gaur egun ez dagoen giro eta ingurua lortzeko baliabide garrantzitsuenetariko bat ikastetxea da”

Gaur egun erabiltzen diren eta dagoeneko erabiltzen ez diren tresnak, soinutresna musikalak deritzaienak eta kategoria hori hartu gabe jostailua edo hots-tresnak, hauek guztiak sailkatu eta kokatu egin behar dira, eta munduko beste kulturetan erabilitako antzeko beste batzuekin konparatu behar dira. Bere eraketan parte hartzen duten materialak eta ezaugarri akustikoak ere ikertu behar dira.

Materialen prestaketari dagokionez kontuan hartu behar dira honako pauso hauek:

- Hots ona lortu ahal izateko metalen, soken, larruen, adarren... prestaketa eta manipulazioa.

- Egurraren edo kainaberaren moztearen zein urtarotan eta ilargiaren zein fasetan eman behar den, sapolaren mugimenduan eta landaretzaren urteko zikloan ilargiaren eraginak garrantzia baitu.

Soinutresnaren zati ezberdinak eta bere funtzio konkretuari dagokionez:

- Hotsaren sortzailea den elementu bibratzailea.

- Enbokadura, hodi sonoroak, aire zaku eta hauspoak, amplifikadoreak.

- Erresonantzia kaxak.

* **Nortzuk jo izan dituzten edota jotzen dituzten ere ezagutzea komenigarria da:**

- Adinaren arabera: haurrak, gazteak, helduak...

- Sexua.



- Jatorri kulturala: kaletarra, baserritarra...
- Lanbidea: artzainak, nekazariak, artisauak, funtzionariak...
- Gizarte onespina: legeak, araudiak eta jole hauen betebeharren ondorioz sorturiko istorioak.

- Musika ikasketak: bazituzten ala ez, eta izanez gero, musika akademikoa zenbateraino ezagutzen zuten. Soinutresna autoktono horrez gain beste zerbait jotzen ote zuten.

- Ikasketak eta musiko postu edo jardueraren transmisioa.

- Garai ezberdinetan, musiko emailen izan diren lekuak.

*** Non, noiz eta zertarako jo izan diren:**

- Baserritar eta kaletar guneak. Plazak, udaletxe eta eliz atariak, larriak, mendia, baselizak...

- Jai nagusiak, erromeriak, ihaute-riak, igandeak, ekitaldi ofizial edo elizkoiak...

- Dantza saioak, entzunaldiak, desfileak, martxak, prozesioak...

- Auzolanetako betebeharrak egitean edo bukatzean: txalaparta, tobera, kirikoketa...

- Ongietorri eta agurretan, une goibel eta zailak arintzeko, zorionean eta euforian laguntzeko...

*** Hots ezaugarriak eta musika errepertorioa:**

- Soinutresna ezberdinen joleen zuzeneko, grabaturiko eta filmaturiko ikus-entzunaldiak.

- Ondorengo puntu hauen ezagutza: tinbre ezberdinak, erabilitako eskaleen berezitasunak eta hauen garapen edo aldaketak, tonu hedapena, soinutresna armoniko sinpleak (xirolarru, zarrabete edo txirula-txun txun) edo konplexuak (akordeoi diatonikoa), airea emittitzeko erak (albokaren kasuan esaterako, aireari buelta emateko teknika berezia) eta abar.

- Doinu herrikoietan ematen den erritmo aberastasuna, bai metrikoa (bikoa, hirukoak eta amalgama) eta baita libreka ere (hauek -abardura erritmikoak egiteko aukera handiagoa ematen digute).

- Musika herrikoian ematen diren estilo ezberdinak, zonaldearen, jolearen prestakuntzaren, tresnaren eta abarren arabera.

*** Eraiketa eta interpretazio lanak:**

- Gure inguruko material ezberdinekin jostailu eta hots-tresnak egitea: gari lastoak, hostoak, belarrak, intxaur azalak, egurtxoak, lata poteak...

- Gure inguruko material ezberdinekin soinutresnak era sinplean egitea: sunpuri-ua, alboka, txistua...

- Hauekin guztiekin hotsaren ezagutza eta interpretazioan lehenengo pausoak ematen dira.

- Eskoletan gaur egun interpretazioaren lehen urratsak flauta gozoekin ematen diren bezala, zergatik ez eskualde bakoitzean bertako soinutresna herrikoiarekin? Hor dauzkagu txistua, txirula, alboka, dultzaina, txalaparta...

*** Irakasleriaren prestakuntza:**

- Lan hau bete ahal izateko, berau ikastetxeetara eramango duen bitartekari baten beharra ikusten dugu. Bitartekari honen prestaketa egokirako baliabideak ezarri beharko dira, eta baita beraien lana aurrera atera ahal izateko azpiegitura egokia ere (liburutegiak, fonotekak, bideotekak, erakusketak, tailerrak...).

Ondorioa

Orain arte agertu duguna ezagutu ondoren, errazagoa izango da gure soinutresna eta honen inguruan dagoenaren gustu eta zaletasuna berreskuratzea, bai galtzen joan diren ohitura, festa, musika, dantza eta abarrengan eta bai gaur egun lortu dezaketen funtzio berriarengan.

Honela, ikastetxeak soinutresna jole bokazioen harrobi bihurtuko lirerateke. Ikasleria gazte horretatik sortuko lirerateke etorkizuneko musikari herrikoiak.

Eta ikastetxeetan egindakoari jarraitzea emanez, Musika eskoletan zabaldu beharko litzateke tresna hauek sakonki ikasteko aukera. Eta ondoren ikastetxe, musika eskola, udal kultur batzorde, kultur elkarte eta erakundeek funtzionalitate eta zeregina ematen saiatu beharko lukete: emanaldiak, dantzaldiak, dantza taldeak eta abar.

Ez da batere erraza izango hau guztia aurrera ateratzea, baina mereziko luke gogotik saiatzea gurea den edo izan den hori berreskuratzen. Lortuko bagenu, hobeto ezagutuko genuke zer izan garen, zer garen eta garena izaten jarraitzeko ahalmentsuagoak izango ginateke.

Jakin badakigu, edozein gauzak, bere kontestutik kanpora izateko ia arrazoi dena galtzen duela eta bizirik jarraitzeko bi aukera dituela: lehen zuen "kontestu" hori berreskuratzea edo beste bat eskuratzea (ala biak).

Zaila badirudi ere, halako aibideak baditugu: berez edo sortzez baserritar inguruko txalaparta, trikitixa eta bertolaritza, kale giroan sartu eta egokitu dira. Ez modu "folklorizatu" batean, baizik eta inguru berrian funtzio musikal eta sozial garrantzitsua betez. Gaur egun antolatuta eta ospatzen diren zenbait festa eta ekintza sozialetan, nahitaezkoa da bere presentzia aktiboa. Hori, pentsaezina zen orain dela urte batzuk.

Hala ere, gure soinutresnen egoera normalizatua nahi badugu, gizartearen arlo guztietan lan egin beharko dugu: ikastola, mota guztietako komunikabide, erakunde eta gure herrietako plazetan.

Juan mari Beltran: “Ikastetxeetan eta musika eskoletan irakasleok jo egin behar dugu, abestu egin behar dugu eta hori transmititu”

Azaldu diguzun panorama ikusita, lan asko egin beharra dagoe-la ondoriozta daiteke.

Bai, dudarik gabe. Zeren musika ikasteko bidea aldatu egin baita. Lehen jaiotzetik, etxean, ikasten zen. Baldintza egokiak ematen ziren. Haurrak denbora guztian aiton-amonen edo gurasoen besoetan egoten ziren kantuak entzunez. Ijito koadriletan ere kantuan ari diren bitartean haurra hor egoten da erdian entzuten. Beraz, informazioa zuzen-zuzenean jasotzen du, hizkuntza ikasterakoan bezalaxe.

Zein da horrela ikastearen ondorio nabarmenena?

Gaitasun musikal handiago eskuratzeko da horrela. Belarria gehiago lantzen da, erritmoak ere naturalki ikasten dira... Horregatik, gure aiton-amonen guk baino hobeto kantatzen zuten.

Zuzeneko trasmisio hori galdu egin da gaur egun. Horregatik sortu al da musika eskolen beharra?

Bai, hala da. Lehen ez zegoen musika eskolarik, zuzenean jasotzen baitzen informazioa. Gaur egun beltzek, ijitoek eta zuberotarrek, esaterako, oraindik mantentzen dute hori eta ez daukate musika eskolarik. Hala ere, eskolatik pasatakoak ez bezala konturatzen dira orkestra gaizki edo ondo jotzen ari den.

Dantzarekin ere gauza bera gertatu da. Dantza taldeak herriak dantzatzen ez duenean sortu dira, ez herriak dantzatzen zuten bitartean.

Bitartekarien beharra aipatu duzu lehen. Zein eginkizun izango luke? Klaseak berak ematea ala irakasleei irakastea?

Bigarren aukera da egokiena. Haurrei kantuak eta soinutresnak irakatsi nahi badizkiegu, irakaslea ezagutu behar ditu lehendabizi. Gaur egun solfeoa jakin bai, baina musikaririk ez dakien asko dago. Horregatik hori guztiok landu behar dugu, irakasle zein gurasoak. Horrela lortuko dugu haurrei informazio hori transmititzea. Ezin dugu espezialisten eskuetan utzi.

Beraz, haurrek irakasleak egiten duenetik ikasi behar dute?

Bai, eta oso garrantzitsua da irakasleak soinutresnak jotzea, abestiak abestea... Musika eskola askotan ikasle askok eta askok karrera bukatzen dute eta ez dute inoiz irakaslea jotzen aditu.


Jaso duten informazio osoa zeharkakoa izan da. Horregatik, ikastetxeetan eta musika eskoletan irakasleok jo egin behar dugu, abestu egin behar dugu eta hori transmititu.

Zein da musikak eskolan hartu behar duen lekua?

Musika pertsonarekin batera doan zerbaitekin da eta eskolan normaltasun osoz tratatu beharko litzateke, eta ez gauza berezi bat bezala.

Egunerokotasun hori lortzeko zein tresna edo material erabil dezakegu?

Tresnak geuk egiten saiatu behar dugu. Egitearekin batera ikasten da tresna horrek nola funtzionatzen duen. Tresna bat egiten duen haurrari ez zaio esplikatzen behar nola funtzionatzen duen.



Mixel Etxekopare: "Hitzen musika" ari gara lantzen, erran nahi baita olerkiak, kantu txikiak, sehaska-kantuak eta horrela



Mixel Etxekopare
Musika eta euskara irakaslea

Mixel Etxekopare irakasle eta musikari zuberotarrak azken urteotan musika bere irakasle jarduerarekin lotu du. Hurrekin musika eta hizkuntza lantzeko proiektuak eraman ditu aurrera eskola publiko desberdinetan. Egun Maule ondoko Gotaiñe eta Garindañe herrixketako eskolan dabil. "Hitzen musika" izeneko proiektua du esku artean.

Ze proiektu mota da "Hitzen musika"?

Eskolan lantzeko kultura proiektu bat da. "Kultur eta Arte mailako atelietarak eskolan" deitzen da. Kultura eta Hezkuntza Ministeritzaren artean luzatzen dute deialdia eta urtero proiektu desberdin bat aurkezten ari gara. Aurtengoa "Hitzen musika" izeneko hau izan da.

Apirilean Zuberoan ospatu zen Xiru festibalaren aurtengo gaia ere hori bera izan zen. Zerikurrisik ba al dute?

Badute, bai. Xiru musika eta kantu festibalean Euskal Herriko eta Pirinio-etako beste ibarreko musika egileak elkartzen dira. Musika desberdinak entzuteko aukera izaten da, baina horrez gain urtero gai bat lantzen da. Gai hori eskolako proiektuaren gai bera izaten da. Beraz, festibaleko egunetan mahai gaineratzen dena, hurrekin ikasturte osoan zehar lantzen da. Xiru festibala ikasturte erdian edo izaten da eta ordura arte egindako lana erakusten da.

Aurreko urteetan ere antzeko lanak egin dituzue, beraz.

Bai, urtero gai desberdin bat lantzen dugu. Urte batez Zuberoako pastorala muntatu genuen hurrekin. Hastapenetik bururatzera irazi zuten hurrekin artisten laguntzarekin. Beraiek zuten gaia hautatu, informazioa bilatu eta ikerketa lana egin. Aztertu, gauzak bildu, pastorala idatzi, kantuak asmatu, otu, idatzi eta gero pastoral normal bat bezala egin eta jokatu zuten guraso eta beste eskolen artean.

Zein da aurtengo "Hitzen musika" proiektuaren oinarria? Zer ari zarete lantzen?

"Hitzen musika" ari gara lantzen, erran nahi baita olerkiak, kantu txikiak, sehaska-kantuak eta horrela. Haurrak bilketa lana egiten ari dira azaroaz geroztik eta errepertorio bat osatzen.

Non eta nola egiten dute bilketa?

Artistei galdetzen die eta baita etxean ere. Aita, ama, anai-arreba zaharagoak, aiton-amonak... dira informazio iturri nagusienak. Bistan da aberastun handia dutela Zuberoan etxeetan eta hortan bermatzen da. Batek ikeritzen duelarik gauza bat, besteek behatzen, entzuten, ikasten, moldatzen eta sorkuntzaren bidez berriz moldatzen dute.

Ze material bildu duzue orain arte?

Badugu olerki sorta bat, sehaska-kantuak, hitz-joko batzuk... Baditugu 20-30 bilduak eta hurrekin orain ari gara lantzen.

Nola lantzen dituzue, zer egiten duzue bilduma horrekin?

Badira sehaska-kantuak adibidez diren bezala esaten ez ditugunak, baina bai lantzen ditugunak. Sehaskantua entzuteko eta errateko momentua gaua da. Gauean bada isiltasuna, gauaren hotsak eta musika ere horgirotzen da.

Haur batek tresna bat jotzen badu, ekarri egiten du. Batek gitarra zahar bat ekarri zuen. Gitarrak ez ditu soka

guztiak, baina baditu soinu bereziak. Haurrak berak ez daki jotzen, baina ateratzen ditu holako doinu bereziak eta doinu haiek sartzen ditu egiten dituzten musketan. Adidibez, gaueko soinu beldurgarriak berak gitarrekin sortu ahal ditu.

Hori da lantzen duguna. Bildutako errepertorioarekin gauza berri bat egiten dugu. Guraso eta aiton-amonek emandako informazioa bilakatu egiten dugu ingurumenera egokituz.

Lan honetan musika eta hitzak biak uztartzen dituzue.

Bai, bai hala da. Hizkuntza da hein handi batean lan honen atal bat eta musika da beste ardatz handia. Ahotsa ere tresna garrantzitsua da musikan, olerki batzuk koruan emateko, beste batzuk bakarka...

Zer garrantzi du horrelako lan bat burutzeak?

Egindako lana guraso eta aiton-amonek emandako informaziotik sortu da, baina aldatu egiten dute haurrek. Erran nahi baita beraien ingurumenera moldatzen dutela. Beraz, jasotako informazio hori itzuli egiten zaie gurasoeri eta aiton-amonei, baina berrikuntzekin, ekarpen berriekin.

Nola itzultzen zaie guraso eta aiton-amonei?

Liburu bat eginen dugu bildutako lan guztiarekin eta baita grabaketa bat ere. Grabaketa horretan haurrek sortutako musika bilduko da: gauaren musika, sehaska-kantuak, haurrek hautatu duten musika... Gure asmoa ekainerako grabatzea da eta ondotik beste eskoletan eta herriko eskoletan zabaltzea.

Zein adinetako haurrekin zabilta?

7 eta 11 urte bitarteko haurrekin nabil proiektu honetan.

Eskola publikoan ikasten duten haurrak dira. Nolako da beraien euskararen ezagutza?

A ereduko ikasleak dira eta dakizuen



bezala eredu horretan oso ordu gutxi dira euskaraz. Hori ikusirik, euskara lantzeko musikari lotu nintzen. Bilketan lan hori egokia ikusten nuen haurrek euskarak beraien gizaratean egiazki zein garrantzia duen ikusteko.

“Lanaren helburua haurrengan zerbait piztea da eta euskarak beraien herrietan eta beren baitan zein garrantzia duen kontzientzia eduki dezatela”

Beraien ondo-ondoan zein aberastasun duten ikusteko baliagarria da, erran nahi baita familietan eta beraien ingurumenean. Hori da garrantzitsua nire ustez.

Orduan, euskara klaseak eta musika klaseak ere uztartu dituzu.

Euskara klaseak pixkat aldatu ditut bai eta musikarekin lotu. Agian euskara gutxiago egiten duzu, baina helburua haurrengan zerbait piztea da eta euskarak beraien herrietan eta beren baitan zein garrantzia duen kontzientzia eduki dezatela.

Aski larria baita oraino euskararen irakaskuntza Zuberoan. Ditugun ahalekin egiten dugu orain momentuan eta beste gisaz ari gara lanean euskarazko irakaskuntza zabaltzeko.

Zenbat haur dira euskaraz hitz egiteko gai?

40 familiatik 5 bakarrik dira familietan euskaraz ari direnak. Oso ingurumen latza dute. Ikastolan badira batzuk euskaldunak, baina herri batzuetan oso-oso apala da euskararen presentzia haurretan.

Horrek horrelako proiektu bat aurrera eramateko lana zailduko du, bada.

Hori da, bai. Baina ni duela urte batzuk hasi nintzen eta beraien herria eta hizkuntzaren artean lotura egiten dutela ikusi dut. Zerbait pizten zaie eta kultura arloko gauza batzuei lotzen dira eta euskarari ere bai.



Elkartrukea: harremanak bideratuz

Urretxu-Zumarraga ikastola eta Terrassako eskola publikoaren arteko elkartrukea

Erreforma martxan jarri zenetik Lehen Hezkuntzako ikasleek 12 urterekin bukatzen dutenez, hainbat ikastetxetan 6. maila izaten da ikasleentzako azken urtea. Hori zela eta, Kataluniako Terrassako La Roda ikastetxe publikoko irakasleek une egokitzat jo zuten beren ikasleek antzeko hizkuntza eta hezkuntza dituzten beste talde batzurekin trukea egiteko.

1996-97 ikasturtean Ikastolen Elkar-tearekin harremanetan jarri ziren eta ondoren gurekin, Urretxu-Zumarraga ikastolakoekin, ea elkartrukearen ideia ontzat jotzen genuen galdetuz.

Lehen Hezkuntzan begi onez ikusten genuela adieraziz, gurasoei helarazi genien proposamena. Gurasoen oniritzia beharrezkoa zen, kanpoko ikasleak beren etxeetara etorriko baitziren.

Alde guztien adostasuna lortu ondoren, lan pedagogikoari ekin genion. Aukera ezberdinak aztertu eta helburuak finkatzea izan ziren hurrengo egitekoak.

Finkatu genituen helburuak:

- Giza zientzietako curriculum osatu gurea ez den beste errealitate nazional bat ezagutuz geografia, historia eta hiz-

kuntza ikuspegitik.

- Bi herrialdeetako ikasleei nork bere herriko kultura eta nortasunaren ezaguerietan sakontzeko aukera eskaini.

- Eskola bakoitzak bere hizkuntza (euskara eta katalana) izanik, elkarrekin komunikatzeko gaztelerak duen garrantzia baloratu.

- Era berean, espresio idatzia landu eskutitzen bitartez elkarren arteko komunikazioa bultzatuz.

- Bi ingurune ezberdinetako haurrak beraienak ez diren etxeetan elkartuz, ikuspegi zabalagoa izateko aukera eskaini, kultura, familia eta pertsonal mailan.

Hasiera:

Martxoaren 30etik apirilaren 3ra bitartean Urretxu-Zumarragako ikastolako 6. mailako guraso-ikasle eta irakasleok Bartzelonako Terrassako La Roda ikastetxeko 6. mailako ikasle eta irakasleak izan ditugu gure etxeetan.

Ikasle kopurua desberdina denez, ikasle gehienek lagun bana izan dute etxean, eta hiru neskek bina. Hara joandakoan, berriz, mutil batzuk bina hartuko dituzte.

Aurretik egindako lana:

- **Gelako aurkezpena**

Kontuan izanik elkartrukea eskolen artekoa dela, taldeko aurkezpenari eman genion lehentasuna norbanakoa gerorako utziz.

Ikasleek, gelaka, euren artean eztabai-datu ondoren, lehen aurkezpena egiteko

modurik egokiena zein zen erabaki zuten: murala.

- **Bakarkako aurkezpena bideoa erabiliz**

Iaz gure ikastolakoek bidalitako bideoan ikastola eta bi herrietako agerpena egina zutenez, gu ikasleen aurkezpenean zentratu ginen.

Bideo honetan ikasle bakoitzak bere aurkezpen pertsonala egiten zuen, aurretik prestatutako gidoitxo batean oinarrituz: izen abizenak, familiaren datuak, zaletasunak, datu bitxiak...

Bideo hau ikasleei eta gurasoei erakutsi zitzaion, Terrassakoek bidali zigutenarekin batera.

- **Irakasleak Zaragozan**

Gabonetako oporretan bi ikastetxeetako irakasleok Zaragozan elkartu ginen, gure bizilekuen erdibidean.

Bilera honen helburua elkartrukea nork norekin burutuko zuen erabakitzea izan zen. Ikasleen arteko elkarketa erabakitzeke garaian ahalik eta baldintza gehien kontuan hartzen saiatu ginen (izaera, zaletasunak...) elkartrukea arraskatatsua suerta zedin.

- **Bakarkako harremana eskutitzen bidez**

Bakoitzak bere laguna izango zenaren izena ezagutu bezain pronto idazteari ekin zion.

Aktibitate honek helburu zehatzak zituen:

- Elkartruketan parte hartu behar zuten ikasleen afektibitatea eta elkarrezagutzeta lortzeko bideak jarri, norberak izandako esperientzia, pasabide, nahiak... elkarri azalduz.

- Norberak bizi duen inguruko berri ezagutarazi.

- ...

- Hainbat lan

Bien bitartean irakasleok elkartruketa gauzatuko zen asterako programaren prestaketan murgildu ginen. Hala nola, aurrez egin beharreko kontaktuak: udalak, kutxak, Getariako arrantzale kofradia... Irteera bakoitzerako materiala prestatu, informazioa eskaini eta ikusitakoaren osagarri modura ariketa sorta landu genituen.

Egitaraua:

Martxoak 30, astelehena.

Arratsaldean ONGI ETORRIA egin zitzairen. Ikastolako zuzendariaren hitzei jarraiki ohorezko aureskua eskaini zitzairen. Ondoren, denek irrikitan itxaroten zuten unea iritsi zen: bakoitza lagunarekin elkartu, eta segidan, bakoitzaren etxerako bidea hartu.

Martxoak 31, asteartea.

ESKUALDEA EZAGUTZEN.

Goizez: Legazpiko Mirandaola burdinola, Brinkolako Igaralde errota eta gaztagintza, Telleriarteko Erreizabal base-rian.

Arratsaldez: Urretxuko Fosilen eta Mineralen museoan bisita gidatua.

Apirilak 1, asteazkena.

KOSTALDEA EZAGUTZEN: Getaria, Zarautz eta Donostia.

Urola ibaiaren bidea jarraituz Zumaia pasa eta Getarira iritsi ginen. Bertan, hiru toki desberdin genituen aztertzeko: Juan Sebastian Elkano, San Salvador eliza eta Arrantza portua. Zarautzen, berriz, marearen gorabeherak (Mediterraneoan nekez ikus daitezke eta). Bukatzeko, Donostian hirian barna autobus ibilalditxo bat egin ondoren "Haizeen orrazia (Peine de los vientos)" eta Igel-dotik badia ikusteko parada izan genuen.

Apirilak 2, osteguna.

GURE HERRIAK EZAGUTZEN: URRETXU ETA ZUMARRAGA.

Herri bakoitzeko alkateak ongi etorria eman zigun, bakoitzak bere udal-etxean.

Urretxuko artxibozainak herriko his-



toriaren momentu garrantzitsuenak ezagutarazi zizkigun eta bertako seme den Joxe Mari Iparragirreraren berri jaso genuen teknikari baten eskutik.

Zumarragako artxibozaina, berriz, herriko pertsonaia ospetsuenari buruz, Migel Lopez de Legazpi, aritu zitzaigun. Ondoren, Legazpiren jaiotetxea den dorretxea ikusi genuen.

Arratsean, gurasoek antolatutako ekitaldia: jokoak eta despedida afaria. Bukaera emateko, ikasle bakoitzari elkartruketa honen oroigarri bana eman zitzaion.

Apirilak 3, ostirala.

AGURRA. Goizeko 9etan, azken agurra eta Terrassarako itzulera.

Balorazioa

Behin ikasle trukearen lehen zatia burutu ondoren, eta esperientzia honen balorazioa egiteko asmoz, galdeketa bat pasa genien ikasleei eta beste bat gurasoei. Hauek izan dira jasotako emaitzak.

Ikasleak

Lehen zati honetan %91ak ondo edota oso ondo pasa duela azaldu du eta etxean egokitutako lagunarekin harreman ona edo oso ona izan duela.

Proporzioan, erlazio txarra edo erdipurdikoa izan dutenak oso gutxi izan dira. Horretarako arrazoiak, izakera desberdinetakoak izatea eta gonbidatua bere lagunekin joateagatik elkarrekin nahi baino denbora gutxiago egon izana izan dira nagusiak.

Klase ordutan jarraitutako egitarauari dagokionez, gehiengoak ontzat eman du.

ZER GEHITUKO ZENUKE? galde-tu eta "ezer ez" eta "jolasteko denbora gehiago edo denbora libre gehiago" izan dira erantzun nagusiak.

ZER KENDUKO ZENUKE? galde-tuta, berriz, "ezer ere ez" erantzun du %44,2ak. Gainontzekoak oso erantzun desberdinak izan dira.

Fotokopiatuta banatutako material osagarria (informazioa + ariketak) %92,30ari egokia iruditu zaio eta etxean egin beharreko ariketak lan handirik gabe eta erraz burutu dituela esan du.

Oso positibotzat jo dute ikasleek eguneko egitaraua bukatu ondoren beraiek egin dutena. Gure herriak nahiko txikiak izanik, ikasleak kalera irten eta elkarrekin ibiltzen edo jolasten ohituta daude. Eta hori izan da, hain zuzen ere, Terrassakoek ere gure ikasleekin batera hemen egin izan ahal dutena: futboleko jokatu, hainbat jolasetan aritu eta kalean ibili.

Ikasleek egindako hainbat balorazio:

-Ondo pasatu dut, baina ez da beste munduko ezer izan.

-Oso ondo pasatu dut nire lagun berriarekin eta ez dut ikastolara joan beharrik izan.

-Hasieran ez nuen etortzerik nahi, oso urduri nengoen; baina orain oso lasai nago eta asko gustatu zait elkartruketa.

-Elkartruketa asko gustatu zait jende asko ezagutu dudalako.

-Espero nuen baino askoz hobeto pasa dut Terrassako lagunekin eta hara joateko lasaiago nago.

-Hasieran ideia ez zitzaidan oso ondo iruditu; baina orain hara joateko gogo handia dut.

-Oso ondo pasa dut. Nire etxera etorri dena oso atsegina izan da. Hara joateko gogo izugarriak ditut, bere familia eta herria ezagutzeko batez ere.

-Lehenago aldiz ikusi nuenean ez nuen inongo gogorik; orain gogo handiak



ditut, baina bidaiak kezkatzen nau.

-Hasieran ez nuen gogo handirik, baina ezagutu ondoren bai; oso ondo pasatu dut astea.

-Oso ondo pasa dut hemen egon diren bitartean, oso jatorrak dira eta ongi konpondu naiz beraiekin. Joateko desiatzen nago.

-Hasieran planak ez zidan grazi handirik egin. Gutunak bidaltzen genituen heinean gustatzen joan zitzaidan.

-Hasiera batean ez nuen gogo handirik eta ezagutu nituenean gogo handia sartu zitzaidan jarraitzeko.

-Hasieran ez nuen hara joan nahi gaizki atera zitekeelako, baina orain animatu naiz elkartrukea positiboa izan delako.

-Hasieran ez nuen gogo handirik, baina eskutitzak idazten hasi ginenean poz handia hartu nuen. Etorri ondoren oso ongi pasatu dut nire lagunarekin eta orain gogo handia dut Terrassara joateko.

-Elkartrukea proposatu zigutenean ez nengoen oso gogotsu. Ekintza aurrera zihoan bitartean geroz eta gogo handiago izan nuen eta orain gogo handiz nago hara joateko.

-Beraiek etorri direnean oso ongi pasatu dut, asko dibertitu naiz. Joateko gogo handia daukat.

-Hasieran ez nekien nola ibiliko ginen baina idazten hasi ginenean desberdin ikusi nuen. Nire antzeko gustuak zituela konturatu nintzen eta hona etortzean horrela gertatu da. Ongi pasatu dut.

Gurasoak

Hauek dira gurasoei egin genizkien

lehen hiru galderak:

-Ikasle trukea izan aurretik, nola sentitzen zineten proiektu honen aurrean?

-Zein da lehen atal honi buruz egiten duzuen balorazioa?

-Zer deritzozue ikastolak proiektu honekin jarraitzeari buruz?

Lehen galderari gurasoen %76,92ak gogotsu sentitzen zirela erantzun dio, %1,92ak gogorik gabe eta %21,15ak ez bata eta ez bestea.

Bigarren galderari, izandako esperientzia ona edo oso ona izan dela erantzun dio %90ak, erdipurdikoa %8ak eta txarra %2ak.

Ikastolak proiektu honekin jarraitzeari dagokionez, %82,69ak proiektu ona dela eta baietz erantzun du, %15,38ak proiektua ona izan arren ez duela beharrezkoa ikusten eta % 1,92a ez da proiektuarekin jarraitzekoaren alde agertu.

Esperientzia honek zein alde on eta zein txar ekarri dien galdetuta, guztiak oso baikor agertu dira, %80ak ez du ezer txarrik ikusi. Zerbait aipatu dutenek, berriz:

-Lan orduak aldatu behar izatea ikasleak "zaindu" ahal izateko.

-Lanagatik denbora gutxiago ikasleen segimendua egiteko.

-Ikasleei ezer gertatzearen beldurra edo kezka (medikatu beharra zutenekin).

-Ikasleak ongi ez konpontzearen kasuan, astunegia egitea etxean edukitzea.

Gurasoak bat etorri dira aurrera eramandako programa baloratzekoan, guztiei ona edo oso ona iruditu zaiela-

rik. Era berean, gehiengo handi batek oso positibotzat jo ditu azken eguneko jokoak eta afari-merienda, gurasoen arteko harremanak sendotzeko ere balio izan duela gehituz.

Proiektuari zer gehitu edo kenduko lieketen galdetuta, %78ak ezer ere ez erantzun du. Zerbait aipatzen dutenek egonaldia luzatzea esaten dute, ikasleei egun bat edo asteburu bat familiarekin egoteko eskainiz.

Hainbat azalpen:

- Oso ondo moldatu gara etxean. Lehengusu batekin aste batean, hobeto esango nuke.

- Ez du lan handia suposatu etxean, eta etxeko guztientzako oso esperientzia polita izan da.

- Beti da atsegina lagun berriak egitea.

- Giro handiagoa egon da etxean.

- Aberasgarria izan da beste herrialde bateko pertsona batekin hitz egitea eta harremanak izatea.

- Geure semea bakarra izanik, gustura gaude nola jokatu duen ikusita.

- Nire semeak joan behar duenerako ziurrago sentitzen naiz bere portaeraz.

- Nolako haurra tokatuko zaizun ez dakizunez, beti ematen du kezka nola moldatuko zaren, are gehiago lanera joan behar baduzu.

- Arduraduna sentitzen zara, ez duzu ezer gertatzerik nahi.

- Nahiz eta denontzako lana izan, merezi du.

Irakasle on balorazioa

Iazkoen esperientzia baliagarria izan zaigu aurtengo lana burutzerakoan. Dena den, ordu askotako lana da. Izan ere, eguneroko martxa eta lanaz gain egin behar baita.

Ikasleak oso gustura ikusi ditugu. Une honetan ondo konpondu ez diren kasu gutxi horiek nola bideratu aztertzen ari gara, hara joandakoan egonaldia denei ondo joan dakiekeen.

Proiektu honekin aurrera jarraitzeko estimagarria da gurasoek azaldu duten gogo eta eskaini duten laguntza.

Terrassako irakasleak gure etxeetan eduki ditugu eta oso interesgarria izan da sortu den harremana.

Irakasle bezala, berriz, oso ondo ulertu dugu elkar (irizpide beretsuak baikenituen) eta asko ikasi dugula uste dugu.

Euskal eskolaren azken hogei urteak

Ipar Hegoa lan ikasketarako fundazioak antolatuta, "Euskal Eskolaren azken 20 urteak" topaketak izan ziren apirilaren 25ean Donostian.

Elkartutako ehunen bat lagunek euskal hezkuntzan parte hartzen duten zenbait erakunde eta adituen hamabi txosten eztabaidatu zituzten. Irakaskuntzan euskarak eta eskolak izan duten bilakaera aztertu zuten.


Puntu asko izan ziren eztabaidagai eta besteen artean hauek jaso ditugu: zatiketa instituzionalak (EAE, Iparraldea, Nafarroa) sortzen dituen egoera ezberdinak, publikotasunaren ulermen desberdinak, ikasleek bizi dituzten hizkuntz egoera ezberdinetan eroso sentitzeko eskubidea, Euskal Herria bere osotasunean aztertu beharra hezkuntza eredu propioa lortu nahi bada, EHak kultura propioa edukiz bere Hezkuntza Sistema garatzeko duen eskubidea, ikastetxeen autonomiaren garrantzia, Iparraldean ematen ari den bilakaera, hizkuntz ereduaren bilakaera, sindikalismoaren jokaera, jectio

zibilaren bidez gure antolamendu propioa nola bideratu, bi komunitateen arteko lis-karra nola ekiditu, aniztasuna nola ulertu, zentralismoa eta Herriaren arteko dikotomia nola gainditu, parte hartzearen garrantzia eta abar.

Ondoren, etorkizunerako helburu komunak landu ziren. Beste hainbat punturen artean lan komun horren ildo nagusiak hauexek izan ziren: hizkuntzaren ofizialtasuna Euskal Herri osoan (Nafarroan eta Iparraldean lortzeko daudenak), hizkuntz ereduaren politika berri baten beharra, Eskola Publiko Berriaren ideian sakontzea, Hezkuntza Sistemak behar duen subiranotasuna, euskal curriculum, testugintza eta formakuntza, bake bidean parte aktiboa hartzeko proposamenak, euskal lan harremanetarako esparrua eta ikuspegi beretsuak bateratuta jokatzeko deia egitea.

Goiz osoan aritu ziren guraso, irakasle, ikasle, hezitzaile, politiko eta sindikalistak eztabaidan. Arratsaldean, berriz, Unescoko ordezkaria den Felix Martirekin aritu ziren solasean.

Felix Martirekin solasean



Felix MARTI

UNESCOko Kataluniako zuzendaria, eta aldi berean, LINGUA PAX nazioarteko komiteko lehendakaria den Felix Marti, Ipar Hegoa fundazioak antolatu zuen topaketetan izan zen Donostian. Hik Hasik, Felixekin hitz egindakoa hemen agertzen dizue.

Zein da munduko hizkuntzen egoera?

Munduan 6.000 hizkuntza inguru daude eta horietatik erdia inguru galtzeko bidean dira. Hala ere, hizkuntzak babestu behar diren kontzientzia zabal-tzen ari da.



Lehen, hizkuntz aniztasuna arazoa zela pentsatzen bazen ere, gaur egun gero eta zabalduago dago aberatsa dela. Mendee-tan zehar hizkuntz nagusiak beste hizkun-tzak desagertarazi behar zituela uste zen eta horrek ematen zien ospea.

Munduan zehar hizkuntz ibilbideak egiten ditudanean, hizkuntz gutxituak normalizatzeko ahalegina egiten ari diren bakardade sentsazioa somatzen dut. Kolonialismo kulturalaren eraginez, kul-tura garrantzitsuak eta garrantzirik gabe-koak zeudenaren ustea genuen. Bigarren hauek hiltzen baziren ere, ez zela kezka-garria, naturala eta zuzena baizik. Azken finean, kultura menperatzailean murgil-tzeak balio zuen. Baina duela urte batzu-tatik hona haizeak aldatzen ari direla nabarmena da.

Zuek hizkuntzen defentsa egiten duzue. Zertan oinarritzen zarete?

Gure ikuspuntutik, hizkuntz guztiek dute duintasun maila berbera. Batzuk, teoriarik, ideia honekin ados agertzen badi-ra ere, praktikan, hizkuntz batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direla pentsatzen dute: ingelesa, alemana... Unescotik hiz-kuntz guztiak berdinak direla aldarrika-tzen dugu eta ezin dela duintasuna hitzu-nen kopuruaren arabera sailkatu.

Hizkuntz aniztasuna gizateriaren histo-rian ekoiztu den onena, ederrena, landue-na dela pentsatzen dugu. Hortik, anizta-sunari egiten zaion edozein eraso gizateriaren ondare garrantzitsuenari egi-ten zaion eraso izatea, denoi defendatzea eta babestea dagokiguna.

Honekin guztiarekin, ezinbestekoa da hizkuntz guztiek behar duten antolaketa politiko, juridiko eta ekonomikoa bermatzea bizirik jarrai dezaten.

Hizkuntzekiko jarrera aldaketa somatzen dela esan al daiteke?

Gaur egun, aniztasun kulturalak du prestigioa eta ez zapalkuntza kulturak. Erabateko pentsaera aldaketa ematen ari da. Espainiar aldaketa hau somatzen hasi da. Frantziar gehiago kostatzen ari dela uste dut. Dena den, gaurkoz, kolonialis-mo kulturala oso nabarmena da bi esta-tuetan. Eta kontuan hartu behar dugu estatuak ez dutela, berez, orain arte izan duten jarrera aldatuko. Guk geure lanare-kin aldarazten joan beharko dugu; Lan politiko eta ideologikoan aktiboak izanda, mobilizazioa erabiliz, eta beti umore ona mantenduz, ahal baldin bada.

Eleaniztasuna gustukoa duzue. Zer dela eta?

Garapen psikologiko batetik hizkuntz ezberdinen ikasketa egokia da. Eleanizta-suna baldintza egokiak ematen badira oso beharrezkoa da etorkizunera begira adin txikiko haurrentzat.

Haurrak konturatu behar du era bat baino gehiago dagoela bizitzeko eta inter-pretatzeko, eta hizkuntz aniztasunaz jabe-tu behar du munduko konplexutasuna ulertzeko.

Lehen, hizkuntz batekin bizitzea posi-ble bazen, gaur egun hau ezinezkoa da. Ordu gutxitan, hizkuntz eta kultura ezberdina duen jendearekin topo egiten dugu eta beraien hizkuntza, kultura, pen-tsakera eta erlijio ezberdinak ulertzeko edo gerturatze bat egoteko beharrezkoa da eleanitzak izatea.

Nola ikusten duzu Euskal Herriko hezkuntza?

Hezkuntzan egiten ari zareten lana oso garrantzitsua da. Euskal Herriko eskole-tan, publikoan zein pribatuan, lanean ari zaretenen arteko gaurko elkarlana ikuste-ak poz handia eman dit. Elkartze hau urtean behin behintzat egin beharko zenukete.

Euskal hizkuntza eta kultura bultzatzen ari zaretenok itxaropena eta etorkizunaren ilusioa ordezkatzeko duzue. Hil zorian egon zen hizkuntza, eta gaur egun behar-

“Unescotik hizkuntz guztiak berdinak direla aldarrikatzen dugu eta ezin dela duintasuna hitzunen kopuruaren arabera sailkatu”

bada zauri handiak izango dituen hizkun-tza bada ere, zuen prestakuntza, lana eta adimenarekin daukazuen arazoak bidera-tzen jakingo dituzuela uste dut.

Hizkuntza eta kultura zapaltzea munduko arazoan iturri nagusia omen da.

Hizkuntz bakea ezinbestekoa da bake politikoa lortzeko. Komunitate bat hiz-kuntza aldetik lasai eta menperatu gabe sentitzen denean ez dago biolentziarik. Komunitate bat hizkuntza mailan eraso-tuta sentitzen denean, aldiz, biolentzia sortzen da. Eta munduan, gaur egun ema-ten diren herri-biolentzia gehienak hortik datoz, herri hori bere lurreen seguru senti-tzen ez delako.

Gosea, hezkuntza, etxebizitza... alorrek asetu gabe badaude segurtasuna zalantzan egongo da. Hizkuntza eta kulturaren ere segurtasuna sentitu behar da. Herri bezala kontsideratuta gaudela eta ez dutela gure-kin bukatu nahi sentitzen badugu, lasai aurkituko gara. Baina, horrela gertatzen ez bada, biolentzia ager daiteke.

Unescoren ustez, komunitate kulturak lasai egon daitezen, estatuak errespe-tuzko neurri zuzenak hartu eta baldintza politiko, juridiko, ekonomikoa eta sozial egokiak eraiki beharko lituzkete.

Nola aurreikusten duzu etorkizuna?

Mundu Bankua, Nazioarteko Moneta Fondoa eta Merkataritza Mundu Erakun-deak agintzen dute munduan, eta gure ustez beste antolaketa arrazionalagoa behar dugu. Herri naturaletako munduko ordezkariak agintari ekonomikoen gaine-tik egon beharko lukete. Gaur egun, munduan aberastasun gehiago dagoela egia bada ere, gutxi batzuk kontrolatzen dute aberastasuna eta munduko gehien-go geroz eta txiroagoa da. Europa eta Ipar Ameriketan ere bai.

Mundua politika mailan beste era bate-an antolatzen ari da. Estatuak pixkanaka desagertzen joango dira eta hizkuntz eta kultura komunitate naturalak izango dira antolaketa berriaren zutabe. Antolaketa berrian hiru maila aurreikusten ditugu: gizabanakoa, kultur komunitate naturala eta botere unibertuala.

Bestalde, Herri zapalduak kultura oso sustraitua badute, bizirauteko autoeraketa izugarria dute. Euskal Herriko kasua horietako bat da. Eta aurrera begira, 50 urte barru edo, euskara Europa eta mundu zabaleko zenbait ikasleek ikasi nahiko duten hizkuntza izango da. Hain hiz-kuntz aberatsa, zaharra... humanitateak galdu ezin duen altxorra da.

GUTUNAK

Zuen kezkak,
iritziak,
desadostasunak,
itxaropenak,...
adierazteko
lekua izan nahi
du.



Berriak

Bidal itzazu zure burutapenak irakasle
euskaldunon aldizkarira

MAIATZA



Gastronomia astea

“Gure gastronomia kultur asteko mamia” lelopean Arrasateko San Frantzisko Xabier ikastolak ikasurte honetako kultur astea antolatu du maiatzare 4tik 9ra bitartean.

Ikasleei begira bi helburu nagusi bete nahi dituzte.

1.- Elikadura orekatuak gure gorpuzari egiten dion onura eta aurrepresaturiko janariak suposa dezaketen kalteaz konturaztea. Baita janaria dastatzea eta poliki, patxadaz, denboraz jateak duen garrantziaz jabetzea ere.

2.- Herri bakoitzak sortutako elikagaiekin erabili duen irudimena

eta elaboratu duena ezagutzea., gastronomia herri bakoitzaren kultur ondarea delarik. Gainera, Arrasaten Herri desberdinetako kultur ondare hauek


zaindu egiten dituzten Elkarreak badaudela eta elkar ezagutzeak aberasten gaituela.

Programaren ekin-tzetatik hauek azpimarratuko genituzke:

- Aiton-amonekin batera ikasle txikiek egindako hainbat janari prestatu.


- Elikadurarekin zerikusia duen zenbait profesionalen Mahai inguru.

- “Gastronomia eta kultura” deituriko eguna, larunbatean, Gastronomia-feria egongo delarik.



Ebaluazioa

V jardunaldi pedagogikoak



Ikastolen Elkarreak antolatuta, Iruñeko Planetarioan maiatzaren 12tik 15era bitartean ebaluazioari buruzko jardunaldi pedagogikoak egingo dira.

Eskolako partaide orori interesa sortzen dion gaia dugu honako hau: ikasle, guraso, irakasle, erakunde zein administrazio.

Jardunaldietan ebaluazioaz zer esana daukaten pertsona anitzek bertan parte hartuko dute.

Joseba Jaka. II. Literatur bekak

Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak, euskal kultura garatzeko eta idazleen lana bultzatzeko helburuz, literatur sorkuntzarako II. Dirulaguntza-deialdia egiten du, beketan banatzeko hamar milioi pezeta bideratuz horretara eta bi urtez behin antolatzeko asmoz.

Bekak hauek lirateke:

-Eleberria. Bi beka, bi milioikoa bakoitzak, irakurle helduentzat idatzitako eleberri edo ipuin bildumentzat.

-Olerkia. Bi beka, milioi banakoak.

-Saiakera. Bi beka, milioi banakoak. Saio literarioa izan beharko du, espekulatiboa esan ohi dena.

-Gazte-literatura. Bi beka, milioi banakoak, irakurle gazteentzat idat-

zitako eleberri edo ipuin bildumentzat.

Lanen proiektuak 1998ko abenduaren 19rako aurkeztu behar dira.

Informazio gehiago nahi bada, deitu telefono zenbaki honetara: 943-219427



Sortzen euskarazko irakaskuntzaren berma bilatuz

Euskal irakaskuntzarekiko diskriminazioaren salaketa-kanpainari jarraituz Euskara Nafarroa osoan hizkuntza ofiziala izendatzea eskatzen dugu. Horrela bakarrik ziurtatuko genuke nafar guztiok Euskal Irakaskuntza jaso ahal izateko dugun eskubidea edo beste era batera esanda, euskaraz ikasteko gaur ukatzen zaigun eskubidea.

Bitartean, eta bide horretatik, hainbat eskaera zehatz planteatu nahi dizkizuegu:

1. Ilunberriko herriak eskatu bezala, zonalde mistora aldatzea erabaki dezaten eskatzen dugu, horrela hurrengo ikasturtean bertako Eskola Publikoan D eredu eskaintzea posible izan dadin. Bestetik, ez du inolako zentzurik Mutiloa, Beriain, Aranguren eta Noaian herriak Iru-erria diren heinean bazterturik eta zonalde ez euskaldunean mantentzeak.

2. 0-3 urte bitarteko etapari dago-kionez, Haur Eskola den heinean lehenbailehen Hezkuntza Departamenduaren ardurapean jartzea eskatzen dugu eta euskaraz egokia den eskaintza ziurtatzea. Mendilorri irekiko den haurtzaindegi publikoa euskaraz izan dadin eskatzen dugu.

3. Ikasleek ahal duten hurbilen eskolatzeko aukera izan behar dute. Beraz, Donibane, Mendebalde eta Ermitaga-ako auzoetan hurrengo ikasturterako aukera hori izan dezaten eskatzen dugu.

4. Murgiltze eredu dabilta-

nentzat baliabide pertsonal zein materialak bideratzea eskatzen dugu programa honek berez dituen zailtasunengatik eta irakasleriaren eszedenteak bideratzeko.

5. DBHn ordutegiaren dekretu-gatik sortutako D ereduarekiko diskriminazioa konpontzea eskatzen dugu. Euskararen eta euskaraz benetako euskalduntze, alfabetatze eta



Sortzeneko kideak Nafar Gobernuko Delegatuzaren aurrean.

gaurkotze zientifiko didaktikoa bideratzea ere bai. Arlo honetan Unibertsitatearekin elkarlana bideratzea eta bertan euskararen ikasketen garapena bultzatzea laguntza handikoa litzateke. Beraz, oztopatu beharrean, normalkuntza horren bultzatzaileak izatea eskatzen dizuegu eta ikasleen eskubideak murrizten dituen dekretua erretiratzea.

6. Batxilergo Artistikoa Nafarroan bertan eta euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzen dugu. Arazorik balego, garaz planifikatu ez delako, behin behineko kanpora joan behar dutentzat beka berezia eskaintzea legezkoa dela iruditzen zaigu, eta baita unibertsitateko ikasketetan ere.

7. Ertainetako eta Goi mailako Heziketa Zikloak progresiboki euskaraz eskaintzea eskatzen dugu. Hasteko, hurrengo ikasturterako Lan Familia nagusi bakoitzeko ikasketak bat euskaraz ezartzea eskatzen dugu: Automozioa (mekanika, txapa...), Elektrizitatea, Osasun Zientzia, Aisia, Informatika...

8. Ikastetxeetako Normalkuntza Plangintza hasita duten ikastetxeek nahiz eskatu dutenek, aurrera eramateko aukera izatea eskatzen dugu.

9. Eskaera hauek guztiak aintzat hartzeko behar den jarrera positiboa bidera dezaten eskatzen dugu, Euskal Irakaskuntza eta orokorrean euskarari dago-kion guztia mesfidantzaz begiratzera daramaten jarrera aldatuz.

Nafarroako Euskal Eskola Publiko berri baten aldeko taldea den Sortzenek eskaera hauek aldarrikatuz Nafarroako Hezkuntza Sailaren egoitzaren aurrean kontzentrazioa egiteko asmoa zuen. Apirilaren 25erako egin zuen deialdia, baina azkenean ezin izan zuten burutu. Izan ere, Gobernuko Delegaritzak ilegalta zela jakitera eman zuelako. Sortzen-eko kideek adierazi zuten, kontzentrazioa debekatzeko argumentua eskaera epez kanpo aurkeztu izana izan zen. Baina, benetako arrazoia hori ez zela izan ihardetsi zuten. Ansuategiren erabakia "euskararen aurkako beste eraso bat" bezala baloratu zuten.

ARGITALPENAK



IBILTZEN ALDIZKARIA

17. zenbakia
1.998ko udaberria
BIGE

Bizkaiko Guraso Elkarteak argitaratzen duen **Ibiltzen** aldizkariaren 17. zenbakia kalean da dagoeneko. Oraingo ale honetan Durangaldea da aztertzeke egileek aukeratu duten eskualdea. Bestaldetik, matrikulazio kanpainari buruzko editoriala eta Martxoaren 8a eta iraileko azterketei buruzko artikulu interesgarriak azpimarratzekoak dira.

EAEko irakasleriaren %39a erreformarekin gustura dago.

Deustu eta EHUko unibertsitateek egindako azterketaren arabera, irakasleriaren %39a erreforma nola eramaten ari den ikusita gustura dago, beste %22a ez dago batere gustura eta gainontzeko %39a, berriz, ez aldeko eta ez kontrako jarreran dago.

Guraso eta ikasleak aldiz, nahiko gustura agertzen dira, orokorrean.

Galdeketa 50 ikastetxe publiko eta pribatuetan pasatu da, guztira 393 irakasle, 2.285 ikasle eta 1.561 gurasoek erantzun dutelarik.

Ikasle eta gurasoek oso gustura hartu dute 16 urterarteko luzapena. Honek izan du eragin handiena beren adostasuna agertzeko.

UNESCOREN ALBISTARIA

104. zenbakia
1.998ko urtarrila, otsaila
eta martxoa

Gure eskuetara iritsi da Unescok argitaratzen duen aldizkariaren 104. zenbakiaren euskarazko bertsioa. Koloretan eta kalitate handian kaleratzen den argitalpen honen azken zenbakian kulturak eta garapenak bizitza hobetzean duten garrantzia lantzen da batez ere. Aipatze-koak dira ere Javier Pérez de Cuellar Nazio batuen Idazkari Orokor ohiari egindako elkarrizketa eta Sonorako basamortuari buruzko artikulua.



Nafarroako Bigarren Hezkuntzako plaza aldaketak

Bigarren Hezkuntzako 1.244 irakaleetatik 554ek plaza aldaketa eskatu dute. Honek, irakasleriaren %44,5a suposatzen du. Lanbide Heziketan, berriz, 219tik 67k eskatu dute, hau da, %30ak.

Administrazioa eta sindikatuen arteko akordio baten ondorioz 561 plaza atera dira konkurtsora eta eskaera epea pasata dagoenean hau da egindako eskaerak.

Finlandia: Eskandinaviari begira

Eskandinaviako lurraldeetako batean pausatzeraz goaz oraingo honetan, Finlandian hain zuzen ere. Baltikoko ur hotzetatik barna finlandiarren artera sartu eta euren Hezkuntza Sistema ezagutzeko parada izanen dugu.

Suomiera eta suediera hizkuntza ofizialak diren lurralde honetan ere Hezkuntza Sistema mailaka banatuta dago; eskolurretik hasi eta goi mailako ikasketetaraino.

Eskolaurrea Ongizate Sozialeko instituzioek antolatu eta administratzen dute, eskolaratze adina ez duten haurrei eskaintzen dien haurtzaindegi zerbitzuarekin batera. Haur hauek behin 6 urte bete ondoren, eskolaurrea irakaskuntza orokorrarekin batera egin dezakete. Baina horretarako Hezkuntza Ministeritzaren baimena behar da. Batez ere biztanleria urria dagoen lekuetan egiten da hori, bertako haurren beharrei erantzuteko. Hala ere, gehiengoa eskolaurrera joaten da, %60a hain zuzen ere.

7 urterekin hasten dute haur finlandiarrek Lehen Hezkuntza, eta hamar urte irauten du. Bi ziklotan banatuta dago: beheko zikloak sei urteko iraupena du eta goikoak hirukoa, nahiz eta beste maila bat gehiago egon zenbait kasutan. Ikasketa hauek eskola oroko-

rretan egin ohi dira eta udalen ardurapean egoten dira. Etapa honetako hezkuntza derrigorrezkoa da, 7 urterekin hasi eta 16 urtera arte. Ezgaitasun handia duten haurren kasuan 6 urterekin hasten da derrigorrezko hezkuntza eta 11 urteko iraupena izaten du.

Hautentzat heziketa berezia dago, eta eskola orokorrean lotuta dauden eskola berezietan (irakaskuntza normaletako klase berezietan) edota irakaskuntza integratu moduan irakasten da. Bereziketa gutxituz eta integrazioa gehituz doa Finlandian. Dena dela, talde berezi batzuentzat (ikusmen eta entzumen arazoak dituztenentzat, adibidez), estatuarenak diren eskola bereziak daude.

Lanbide Heziketako aukerak

Oinarrizko Hezkuntzaren ondoren haur finlandiarrek Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa egiteko aukera dute. Horretarako Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikastetxeak eta lanbide eskolak dituzte. Maila honetara iristen den ikasleen %60ak lehen aukera egiten du, eta hauetatik %60ak Goi Mailako Bigarren Hezkuntzako eskoletan ikasten du.

Ikastetxe hauek udalen ardurapean daude eta hiru urteko ikasketa orokorrak eskaintzen dituzte. Bukaeran ikasleek matrikulazio nazionalako azterketa egin ohi dute eta hori gainditu beharra izaten da unibertsitatara joateko.

Lanbide Heziketaren lehen ikasturteak, bestalde, estatuak edo udalek

zuzendu eta mantendutako hezkuntza instituzioetan eskaintzen dira. Bide hau hautatzen duten ikasleen kopurua oso baxua da. Hiru urteko iraupena du, 17 urterekin hasi eta 19 urtera bitartean.

1995 arte 26 oinarrizko programa zeuden eta 250 programa espezializatu, sektore guztietako lanbideak errepresentatzen zituztelarik. Dena dela, hauetako gehienak Goi Mailako Lanbide Heziketakoak ziren. 1995az geroztik, ordea, oinarrizko programak desagertu egin ziren eta programa espezializatuak 160 izatera pasa ziren. Programa orokorrak eta hautazkoak eskaini ziren. Horrela, ikasleak askeagoak dira aukeraketak egiterakoan, nork bere programa pertsonala erabaki dezakeelako.

Horrekin batera, Lanbide Heziketako ikasketak eta oinarrizko ikasketak konbinatzeko aukera ere badago.

Zentro politeknikoen esperimentua

19 urterekin ikasten jarraitu nahi duenak bi aukera ditu, ordura arte bezalaxe: Goi Mailako ikasketak eta Goi Mailako Lanbide Heziketa. Lehenengo aukerari dagokionez, bi sektoretan banatzen da: sektore unibertsitariarioa eta sektore ez unibertsitariarioa. Lehenengo Goi Mailako ikasketetarako 21 instituzioek osatzen dute. Estatuak finantzatzen ditu eta ikasleentzat dohainik dira. Ikasketa hauen ostean oinarrizko titulua lortzen da, masterraren parekoa dena. Normalean 5 edo

5 urte eta erdiko ikasketak izan ohi dira. Dena dela, 3 edo 3 urte eta erdi ikasiz diplomatura lortzen da. Unibertsitate ikasketak egiteko nahikoa da matrikulazio froga gainditzea.


Sektore ez unibertsitarioari dagokionez, 22 zentro politekniko esperimentalek osatzen dute. Denboraldi batekoak dira eta Goi Mailako Lanbide Heziketa eskaintzen duten 85 institu-

zioek osatzen dute. 1991. urtean jarri ziren martxan Lanbide Heziketaren maila hobetzeko asmoz. Hiru edo lau urteko ikasketak izan ohi dira, eta lortutako diploma unibertsitateko mailen arabera sailkatzen da. Politeknikoetan ikasi ahal izateko, Goi Mailako Bigarren Hezkuntzako ziurtagiria eduki behar da.

Lanbide Heziketako Goi Mailako

ikaskei dagokionez ere titulazio desberdinak daude: eskola mailako diplomak eta goi mailako diplomak. Lehenengoak eskuratzeko hirutik bost urtera bitarteko ikasketak burutu behar dira eta bigarrenekoak lortzeko bostetik sei urtera. Ikasketa hauek egiten hasteko oinarriko ikasketak edo Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa egin behar da.

Finlandiako Hezkuntza Sistema



Zer da eskultura? (eta III) Batasun didaktikoa

Imanol Agirre Arriaga

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakaslea
Psikologia eta Pedagogia Departamentua



H

IK HASIren 26 eta 27. zenbakietan eskultura lantzeko proposamenak luza-tu dizkizuegu.

Atal honekin bukatzeko, lan horretan baliagarri suerta dakizuekeen datu sorta bildu dugu.

Irudien deskribapen eta datuak

Hemen aurkezten diren datuak oso orokorrak dira eta ahal den neurrian modu ulergarri batean jartzen saiatu gara. Horrek ez du esan nahi derrigorrez haurrek beraiek erabili behar dituztenik. Guk irakasleontzat idatzi ditugu, baina hala iruditzen bazaizue, haurrei

ere helarazi diezazkiekezue. Iruzkin bakoitzean ikuspuntu ezberdinak jorratzen saiatu gara “historikoa, estetikoa, kritikoa eta abar” jarduera honetan zer nolako bideak har daitezkeen ikusteko. Hala ere, kasu guztietan informazioa osatu egin beharko litzateke. Adibidez, haurrek aise bila dezakete Migel Angelen artelanari buruzko datu gehiago liburuetan edo bere garaikide zein maisu izan ziren Leonardo edo Giottoari buruzko informazioa eta irudiak. Oma basora ere txango bat egin dezakezue, hemen aipatu ditugun irudien eragiketa eta deskonposaketaren eraginak bertan ikusteko. Hori guztia zuen esku gelditzen da, zuen jakinduria eta irudimenerako zirrara suspertzaile bat besterik ez dute izan nahi honako iruzkin hauek eta.

Parella (1985)


Andrés Nagel eskultore donostiarrak egindakoa da. “Korten” izeneko altzairu berezi batez bi piezatan egina dago eta bakoitzak 121 cm-ko altuera du. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bildumaren osagai da eta Arteleku izeneko arte zentroan erakusten da.

Andrés Nagel oso eskultore berezia da. Bere garaiko euskal eskulturaren bideak baztertu ez ezik, oso ironikoa izan da askotan “euskal artea”ren topikoekin (baserriaren eta marinelen irudigintzaren errepikapen antzuekin, alegia). Bere lanak gehienetan ironiaz eta umorez jantzita egoten dira, berarentzat eskultura egitea ongi igarotzea baita. Sortzen dituen pertsonaiak xelebreak izateaz gain oso surrealistikak dira. Ez dira guk egunero topa ditza-



kegun horietakoak. Pertsonaia hauek kokatzen dituen inguruneak ere oso surrealistikak izan ohi dira.

Oso marrazkilaria ona izan da. Bere eskultoretarako material anitz erabiltzen du. Altxairua ez ezik, poliesterreko erretsina, kartoia, egurra, eta abar. Sarritan, ohikoa ez den bezala, bere eskulturak oso kolore biziz koloreztatzen ditu bere obraren alaitasuna areagotuz. Oso eskultura gutxi ditu leku publikoetan, baina hemen aurkeztutakoa ez ezik Donostiako Ibaetan, Filofofiako fakultatearen aurrean dagoen



brontzeko eskultura erraldoi hori berak egina da.

Omako Basoa (1983-1991)

Agustin Ibarrolak margotua, Oman (Bizkaian), bere baserriaren ondoan dago.



Bizkaian jaioa, 1948an bere aita fundizioetako langilea zen eta berak dioenez, beti izan ditu gogoan bere aitaren burdin zipristinek laztutako eskuen ferekak. Langileekin eta bere gizarteko egoerarekin kezkatuta, arteak haien bizimodu gogorra salatu egin behar zuela uste zuen. Horregatik, hiru aldiz gartzeleratua izan ezezik, Parisera joan behar izan zuen bizitzera eta lan egitera.

Bi kezka izan zituen nagusiki bere bizitza artistikoa: esandako langile-riaren bizimoduarena eta, bere garaiko artista askok bezala, formen arteko harreman espazialen azterketarena. Hori dela eta, oso famatua izan zen "Equipo 57" izeneko talde bat sortu zuen Parisen.

Bere lana margogintza munduan garatu zen gehienbat. Aipatutako kezkak arazo plastikoak bilakatuz, lantegietako eskenak eta gartzelako oroimenak izaten dira askotan berak jorratutako gaien artean gure oroimenak hobekien gordetzen dituenak. Baina azken urteetan (1980 inguruan) eskulturagintzan hasi zen trenbidetako trabesaz lan bikainak eginez. Orduetik hona, trabesetatik zuhaitzetara, bere ekoizpena gero eta ugariagoa eta gero eta aberatsagoa da. Horrela, 1983an hasita, bere etxe inguruan botatzear zegoen pinudia erabili zuen espazioaren inguruan

esperimentuak egiteko, eta misterioz beteta dagoen baso zoragarri hau utzi digu. Sakontasunarekin jolastuz edota formak osatuz, gaur egun bisitarako erabat prestaturik dagoen basoan ikuslearen ibilera sorpresaz josita dago.

Hemen aurkezten dugun zatia oso ezberdinak diren zatiz osatuta dago: itxuraz loditasun homogenea duten marrazkilaria, baina urrutiago daudenak gertu daudenak baino askoz ere lodiagoak dira... Hori da jolasaren grazia, horrela eginez, marren loditasunak ezberdindu (ezin da beste modu batez egin) lortzen baita marren loditasunaren homogeneitatea (berdintasuna). Eta gainera, puntu zehatz batetik soilik ikus daiteke. Puntu horretatik pixka bat mugituz forma guztia desagitzen da.

Irudi etzana (1939)

Henry Moore (1898-1986). Zumarra zuhaitzaren egurra. 2,05 m. Detroit Institute of Art.

Eskultore britaniarra da. Hasieran antzinako artean oinarritu zituen bere formak, gehienbat eskultura aurrekolonbiarrean. Gero izadiaren behaketa sakonak eman zion behar zuen guztia bere ikerketa formalak eta plastikoak burutzeko. Animalien hezurak, troskak-harriak, adarrak eta harkaitzak dira bere eskultura ugaltzen duten iturbiak. Berarentzat hauengan guztien aurki daiteke biziaren aztarna, eta aztarna hau biribil eta organikoak diren formetan datza.

II. Gerra Mundialak Londresen harrapatu zuen, eta hunkigarriak dira



orduan metroko tuneletan bonbardeaketatik gordetzen zen jendeari eginko marrazkiak.

Ordutik aurrera, eta aurkeztutako eskulturan ikusten den bezala, era honetako formekin aritu zen giza gorputzaren irudia aztertuz. Giza gorputzaren jarreraren azterketetan eskultore batek bere bizitza osorako lana soberan ukan zezakela zioen. Eta bai saiatu ere, giza irudiak soilik ez baitzituen egin.

Sarritan irudiak etzanda edo eserita egiten ditu, guk hautatutako adibidean bezala. Honen arrazoia ez da estetiko soilik, badu bere alde teknikoa. Behin aitortu zuen ez zuela maite giza gorputzaren azterketa plastikoa zutik dauden irudien inguruan egitea -klasismoak egin zuen bezala-, horrek eragozpen handiak zituelako bere ustez: irudiak jantzen ez badira edo -Miguel Angelen Daviden kasuan bezala- enbor bat atxikitzen ez bazaie, hanketatik hautsi egiten dira, egindako lana bertan behera utziz. Horregatik berak irudiak etzanda egitea proposatzen du; "zutikako irudiak har dezakeen jarrera berbera eman diezaiokegu etzandakoari, konposaketa eta eritmoari buruzko azterketa ezertan murriztu gabe, eta gainera ez dugu hausteko horrenbeste arriskurik izango", zioen.


Forma biribil eta organikoaz gain, H. Mooren eskulturaren beste ezaugarria gorputzen azpiegitura azaltzearen beharra izango da. Horregatik xehetasunak baztertuz "hezurdurarekin" soilik gelditzen da, bolumenen arteko espazioa materiala bera bezain garrantzizkoa delarik.

H. Moorek eragin handia izan zuen euskal eskultore ospetsuenengan: Chillida eta Oteizaren aurreko eskultorek H. Mooren lanekin antza handia dute. Gazteago diren X. Laka bizkaitarraren eta J.R. Anda nafarraren estraineko lanek ere H. Mooren estiloa mantendu zuten, eta honen garaikide eta laguna izan zen Barbara Hepwoorthen forma organikoekiko zaletasuna ere bai. Henry Moore, mende honetako eskultorerik handienetakoaren eskultura bat gaur egun Gernikan ikus daiteke.

Mandolina eta klarinetea

P. R. Picasso-k (1881-1973) egin zuen 1913an, Parisen, egur zatia margotuz. Gaur egun Pariseko Picasso Museoa gordetzen dute.

Picassoren artelanak oso ezagunak dira eta artista beraren bizitza ere bai.



Hortaz, ez gara honen aipamenetan geldituko. Bere eskultorek, berriz, askoz ere ospe gutxiago dute, nahiz eta artearen alor honetan bere ekoizpena oso ugaria izan.

Picassok eskultura arloan, margo-gintzan bezala, oso estilo ezberdinak jorratu zituen: kubismo sintetikoa deitzen zaion estilotik figuratibismo arruntago batera, surrealismotik pasaz. Zerbait aipatzekotan bere eskulturari buruz, esperimentaziorako grina eta zaletasuna aipatuko genuke. Amaitezina da Picassok bere eskulturetan erabilitako materialen eta arazo plastikoen zerrenda. Sarritan, kubistek bere collage-etan egiten zuten bezala, oso material pobreak erabiltzen zituen bere lanetan, zabortegetatik edo txartargetatik bildutakoak.

Hemen aurkezten dizuegun eskulturan begirada kubista batekin helden dio mandolina eta klarinete gaiari. Musika tresna hauen oinarritzko eiteak askatu egiten dira osotasunetik, konbinaketa berri batean elkartzeko. Baten soslaiak bestearen aurreikuspegiarekin josiz, desantolaketatik abiatuz beste antolamendu bat eraikitzen du


Picassok tresna hauekin. Eta hori guztia lortzeko arkatza eta margo pixka batekin aberastutako egur zati kaxkar batzuk besterik ez ditu erabiltzen.

Beste batzuetan, Pariseko dendetatik hartutako kartoizko kutxak nahi-koak zituen era honetako gaiak jorratzeko. Bere maisutasunak gidaturik, hemendik moztuz eta han itsatsiz eraikitzen ditu lirismoz betetako eiteak, arruntak diren gaiak, materialak arte bilakatu.

Emakume baten burua (1917-1920)

Zeluloide eta metalez egina. Museum of Modern Art (Moma), New York. Naum Gabo (1890-1977) eskultore errusiarrak egin zuen. Bere benetako izena Nikolas Pevsner zen eta bere anaia Anton Pevsnerekin lan egin zuen.

Hasieran konstruktibismoaren mugimenduan parte hartu zuten, Malevitch, Tatlin eta Roodchen bezalako eskultoreekin batera. Baina 1930an bi anaiek "Errealismoaren Aitorpena (Manifestua)" izenpetu zuten. Idazki honetan eskultore, margolari edo arkitektoek injineruak balira bezala lan egin behar dutela argudiatzen dute. Obren azaleko arazoekin horrenbeste aritu gabe eta artelanak osatzen dituzten barne egituretan, tentsioetan jarriz arreta. Bost axola zaizkie orduan kolorea, ehundura eta antzekoak. Hauek





materialak injineru batek jartzen duen sofistikazio eta zehaztasun guztiarekin erabiltzen dituzte: egitura matematikoak osatuz.

Baina hemen aurkezten dizuegun eskultura aitorten hau lehenago egin zuen eta zerikusi handia du konstruktibismoaren jarrera eraikitzailearekin, arestian aipatutako eskultoreek mantendu zutena bezalako horrekin.

Tatlinek behin baino gehiagotan egin zuen bezala, Gabo bazter baten hiru planoez baliatzen da bere lan hau garatzeko. Bazter batek osatzen duen triedroak ematen dio plastikozko laminen bidez burua osatzeko aukera. Horregatik eskultura hau, inguratu daitekeen eskultura bat baino gehiago, erreliebe sakon bat da. Deigarriena moztutako laminen ertzak aurpegia "marrazteko" nola profitatzen dituen da, nolabait xafla lerroak bilakatuz. Argiak asko laguntzen du efektu hau lortzen, berak argitzen baititu ertzak sankontasunaren sentsazioa sortuz eta, bide batez, aurpegiaren itxurari dra-

matismoa emanaz. Buruaren irudia lauzpabost lerrotan laburturik dago, eta hala ere sentimenduz betetako irudia da. Bestela, teknikaren aldetik bederen, egiteko prozesuak ez du inolako eragozpenik aurkezten eskultura honetan.

Kariatideen zutabea. Delfos

Delfos Grezian dago, Fozidan, Parnaso mendiaren magalean eta Korintoko golkoaren iparraldean. Han, antzinako Greziako biztanleek santutegi bat eraiki zuten, tenpluz eta beste eraikuntzez beteta. Horietako batean dago hemen aurkezten dizuegun zutabea.

Delfosen, gehienbat, Apolo eta Dio-



niso miresten ziren; baita Atenea eta beste jainko eta jainkosak ere, baina arestian aipatutakoak ziren garrantzikoak. Oso famatua da Delfosen zegoen Orakulua. Jendearen kezken konponbidea ziren orakulo asko zegoen antzinako Grezian, baina Delfoskoak besteek baino garrantzi handiagoa hartu zuen. Bere autoritatea bizitza ekonomiko, politiko eta erlijiosoan nabaritu zen. Galderak eta zalantzak erritual korapilotsu baten bidez plazaratzen ziren, sarritan animaliak edo

beste zenbait ondasun eskainiz. Eskiera hauei "sazerdoteek" asmakizunaren bidez eta jainkoei galdetuz ematen zieten erantzuna.

Hemen aurkeztutako eskultura eskaintzarako prestatuta zegoen eszenatokiaren zati bat dugu. Ez dakigu nor izan zen lan honen egilea, baina adituek diotenez duela 24 mende egin dago eta eskaintzetarako aldareen zati bat omen da. Hiru irudiek apaintzen dute zutabea, eta eraikin osoak 13 metrotako altuera omen zuen. Ez dago batere garbi zer irudikatzen zuten irudi hauek, baina adituen iritzi zabalduenak dantzariak zirela dio. Irudian agertzen zaigun honen keinuak susmo hau baieztatu egingo luke. Aipatzekoa da klasizismoan eragina izan duten emakumeen jarrera elegante eta mugimendu orekatua. Aurpegiak ondo ikusten ez badira ere, oso edertasun lasaia eta idealizatua aurkezten dute, eta janzkerak, bere aldetik, gorputzen handitasuna azalarazten dute, haizeak mugitutako tunika motzak grazia eta mugimendu berezia ematen dietelarik. Ilearen diseinuan nabaritzen da janzkerak egiteko erabili den teknikekin kontrajarria den beste epealditako aztarna geometrikoa.

David (1502-1504)

Michelangelo Buonarroti (Migel Angel) 1475an jaio eta 1564an hil zen. Eskultore, margolari eta arkitektoa izan zen. Oso gaztea zelarik Lorenzo Medici printzeak Florentzian zuen gortean bizi izan zen, Venezian, Erroman eta Bolonian barna ibili ondoren. Mediccis-tar honen babespean egin zituen bere eskultura boteretsuenak eta dotoreenak, "David"besteak beste. Donatello eskultore eta Giotto zein Masaccio margolariengandik ikasi zituen Errenazimentuko estiloa eta baloreak.

"David" izeneko bere eskultura famatu honi "Erraldoia" deitzen zioten garaikideek, 4,5 m-ko altuera zuelako. Ordura arte Florentzia hirian David-en ohorez eginiko beste bi eskulturak -Donatello-rena eta Verroc-



chio-rena, alegia- askoz ere txikiagoak baitziren. Bitxia da “David” erraldoitzat hartzea. Zerbaitegatik ezaguna baldin bada pertsonaia hau Goliath - hau bai benetako erraldoia- menperatzeagatik baita. Bi hauen arteko borrokaren historia oso ezaguna da eta edonon aurki daiteke horren berri.

Bere estiloaren ezaugarriak bolumenen sendotasunean eta bihurritasunean, gero Barrokoan iraungo duten baloreak, oinarritzen dira . Bere margogintzan ere holakoxeak azaltzen dira eta horregatik esaten da bere margoetako pertsonaiak oso eskultorikoak direla, argi-itzalen arteko jokuaren bidez bolumenak nabarmentzen saiatzen delako. Sarritan Migel Angelen artelanetan desosegua, egonezintasuna eta dramatismoa nagusi baziren ere, hemen aurkezten dugun eskulturaren ezaugarriak ordea, oreka, indarra, ziurtasuna eta dotoretasuna dira.

Bere altuerak ezezik Daviden itxurak ere berehala liluratu zituen Migel Angelen garaikideak. Pertsonaiaren gaztetasuna eta ziurtasuna (kontraesaneke baloreak garai hartan) bat egiten dute “haragi bilakatutako” marmolaren bidez. Burua erdi biraturik, harriak jaurtitzeko habaila (larru zatia) bizkarretik zintzilik, eta bere gorputzeko zama hanka baten gainean kargaturik izateak, erraldoiari inolako beldurrik ez diola ederki asko azaltzen du. Gainera, eta hau bai zaila harrizko eskul-

tura batean, Daviden begirada sarkorra bere harrikada baino boteretsuagoa izatea erdiesten du.

Migel Angelek bazekien egin behar zuen lanak benetan lan handia izan behar zuela eta buztinezko zirriborroz beteta zeukan estudioa garai hartan. Lana berak bakarrik burutu zuen, argizarizko eta lokatzezko maketen eta marrazkien laguntza besterik izan ez zuelarik, baina oso argi zuen bere buruan pertsonaiak nolakoa izan behar zuten. Dena pentsaturik zeukan, baita eskulturaren altuerak sortuko zituen ezbeharrak ere. Horregatik indartu zuen eskuineko hanka adaska baten enbor iher bat atxikituz. Bestalde, proportzioak zuzenduz, burua behar baino handiagoa egin zion, altueran urrutiago eta hortaz, txikiagoa ikusiko zitzaiola uste izan baitzuen.

Gaur egun Florentzian Galeriako Akademian dago ikusgai. Migel Angelen beste eskultura ospetsuen artean “Esklabuak”, “Atlanteak”, Pieta, Moises, ... Florentziarrek bere hiriaren askatasunaren lorpenaren sinboloa bezala hartzen dute.

Hilarria

Hau Euskal Herrian jasotakoa baldin bada ere, mendebaldeko Europan barna ere aurki daitezke era honetako hilarriak.

Hemen, Euskal Herrian, batik bat Erdi Aroan eta Errenazimentu garaiko hilobietan aurkitu dira hildakoen ohorez jartzen ziren hilarri gehienak.



Gero, lurperaketak elizbarrutan egiten hasi zirenean usadioa galdu egin zen. XIX. mendean gorpuak hilerrietara ateratzen hasi zirenean, gurutzeek bete zuten lehenago hilarriek egindako papera. Duela urte batzutatik hona modan jarri dira berriz eta ugaltzen hasiak dira gure inguruneke hilerrietan.

Adituek ez dakite hilarri hauen esanahi eta jatorri zuzena zein den. Bada-kigu beste herri batzuek ere, erromatarrek, keltiarrek iberoek..., antzeko oroitarriak erabiltzen zituztela , nahiz eta askok forma ezberdinetakoak izan eta agian beste funtzio batzuetarako erabiliak. Ikertzaile batzuen ustez hildakoaren burua eta lepoa adieraziko lukete. Baina borobila, seguraski, izango da monumentuaren protagonista nagusia, bestea euskarri soil bat besterik ez delarik.

Dena den nahiko ausarta da gure aldetik hilarria eskultura bezala onartzea. Hilarri gehienek aurreko aldetik bakarrik izan baitira landuak eta hori errelieve baxuaren teknikaren bidez. Hala eta guztiz, eskulturaren atalean aipatzera ausartu gara hilarri batean ere, giza irudiaren antzera, hiru zati bereiz ditzakegulako: atzealdea (bizkarrira), burua (goiko borobila) eta euskarria(lepoa). Formari buruzko eredu hau nahiko ez balitz, hilarriek izan duten erabilpenagatik oso osorik betetzen dute herri eskulturagintzaren erdua Honetaz gain, hainbat eskultore garaikidek, ez euskaldunak bakarrik, hilarriak oinarritzat hartu izan dituzte zenbait lan burutzeko..

Estilo askotako hilarriak daude. Gehienek apaingarri geometrikoak badituzte ere, badaude kasuak non gurutzeak edo hildakoaren izen-abizen agertzen diren, hala nola hildakoaren ofizioaren tresneria grabatzen den bere bizitzan nor zen eta zer egiten zuen adieraziz. Dekorazio aldetik Errenazimentu eta Barroko garaikoak dira aipagarrienak. Hargin batzuk izugarritzko maisutasuna hartu zuten eta konpasaren bidez harriari lortzen dituzten lore eta filigranak ikusgarriak



dira. Borobilaren geometria, gainera, gurutzea eta gurutze antzeko formekin korapilatu egiten da, efektu optiko oso bereziak lortuz.

Ile zuria duen eskimala

Paul Klee, margolari suizarrak 1924ean egindakoa dugu berau. Bernako Paul Klee Fundazioan gordetzen da egun.

Paul Klee, mende honetan izan den artistarik bitxienetakoa da. Surrealismoaren mugimenduan hartu zuen parte, baina bere estiloak, lirismoz eta goxotasunez betetzen zihoan heinean-nortasun handia hartu zuen beste artista garaikideen artean, Kandinsky besteak beste. Bauhaus eskolan ere aritu zen margogintza erakusten.

Haurren marrazkien miresle amorratua izanik, haiek hartzen zituen askotan bere lanaren eredu eta helburu. Ez zuen eskultura asko egin, baina hemen aurkezten dugun lanak oso ondo adierazten du Kleeren artearen poesia eta harekiko maitasuna.

1916an, bere seme Felixek 9 urte



bete zituenean, txotxongilo bat egitea bururatu omen zitzaion. Gustua hartu zion nonbait lan honi eta ordutik aurrera 50 baino gehiago egin omen zituen.

Hasieran igeltsu margotua eta oihal zati txikiekin gauzatzen panpinak baina laster era askotako materialak erabiltzen hasi zen: intxaurreak, botoiak, lumak, entxufeak, hezurak eta abar, edozein gauza bihurtzen zen baliogarria txotxongiloaren burua edo gorputza itxuratzeko.

Picassoren antzera, amaigabeko irudimena zuen, artea nonnahi aurkitzen zuen eta hori ezagutarazi nahi zien bere ikasleei ere. Pasadizo hau kontatzen da. Bauhausen, 1920an, irakasle bezala hasi zenean, bere lehenengo klasean planeten historia bat kontatu omen zien ikasleei: bi planeta bere orbitetatik ateratzen dira eta espazioan ibili ondoren elkar topatu eta eztanda egiten dute." Marraz ezazue zer gertatu zen orduan" agindu omen zien ondoren.

Fortune telling Parrot. 1937-1938


Joseph Cornell artista amerikarrak egindakoa da. Oso isila eta urduria, New Yorkeko Queens auzoan bizi zen eta oso gutxitan pasatzen omen zen Manhatann uhartera, txamarileroen dendetara bere kutxetarako materialaren bila joateko ez bazen. Hoteletako morroiek ematen omen zioten beste

lurraldeetako berri, eta berak nahiago zituela lurralde hauen akatsak ezagutzeari, bertara joatea baino esaten zuen beti.

Bere kutxek ospe handia hartu zuten, beraietan biltzen baitzituen bere amets beteezin guztiak. Hiru dimentsiotako collage itxiak bezalakoxeak dira. Beti agertzen dira eskuz landutako objektuak: ispilu zatiak, pipak, irudi txikiak, argazkiak, hormetako paper margotua, hoteletako fitzak eta kutxa batean kabituta daitekeen eta imagina dezakegun beste edozein gauza. Antikuarioen dendetan eta kaleetan aurkitzen bazituen ere, ez zituen konposaketak edonola egiten. Sarritan objektuak garbitu, patina edo argizaria eman eta kontu handiz prestatzen zituen kutxetan bere tokia bete baino lehen.

Esanahiaren aldetik ezin da gauza handirik esan. Cornellaren ametsezko munduan inspiraturik baitaude. Surrealista den heinean ez du mezu zehatz eta ondo pentsatutako bat azaltzen bere obren bidez, aitzitik, adimenaren jario librea, kontrajarria sarritan, da kutxen bidez artista honek plazaratzen duena.

Euskal Herrian badugu J. Cornell asko miresten duen eta haren legez objektu zaharren aierupenaren balioa, belarrak, lumak eta adarrak konbinatuz oso mundu zoragarria sortzen duen beste artista bat: Bixente Amestoi gipuzkoarra.





Joseba Jaka
FUNDACIÓN
FUNDACIÓN



Joseba Jaka

II. LITERATUR BEKAK 1998

Olerkia • Eleberria • Saiakera • Gazte-literatura

Tel.-Fax: 943-21 94 27

baloreak

.....

irakaskuntzan

Arlo teorikoa: Joxe AZURMENDI eta Felix PLACER

Arlo teoriko-praktikoa: Izadia kabinetea, Eskoriatzako Almen ikastola, Errenteriako Iztieta ikastetxea, Kanboko Xalbador kolegioa, Basauriko Kareaga Goikoa herri ikastetxea, Gasteizko Koldo Mitxelena institutua...

hik hasi
elkarrekin **topaketak**

Maiatzak 22-23
Miramar Jauregian
Donostia